



# ARGIA



## Korsikaren burujabetza falta lehen lerrora

YVAN COLONNAREN HERIOTZA

14-17. orriak

#2.773 | 2022 / 04 / 03 | 4,00 €



**"Mugitzen diren  
gazteek meritu  
handia dute"**

18 | MIGUEL ANGEL LLAMAS, PITU



**Frantziako  
lehendakaritza  
hauteskundeak**

28 | POLITIKA



**Uger taldearekin,  
hirugarren diskoa  
atera berritan**

42 | MUSIKA

korrika.eus



æk  
22.korrika

# HITZEKIN

Amurriotik Donostiara

2022ko martxoaren 31tik apirilaren 10era

**BUKAERA**

# JAJA!

**DONOSTIAN  
APIRILAK 10**

Donostia euskararen hiria

[www.donostiaeuskaraz.eus](http://www.donostiaeuskaraz.eus)



## Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 08 | EKONOMIAREN TALAIAN
- 09 | HUMANITATEAREN UNE GORENAK
- 09 | EZ HANKA EZ BURU

AZALEKO ARGAZKIA:  
CHRISTIAN BUFFA

## Iritziak

- 23 | ASIER BLAS MENDOZA
- 24 | UXUE APAOLAZA
- 25 | MIKEL OTERO
- 25 | LEIRE NARBAIZA
- 26 | AINHOA AZURMENDI
- 27 | EMAKUMEOK GERRAREN AURKA

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:  
CLIPART COURTESY FCIT

## Finkoak

- 40 | BIZI BARATZEA
- 47 | ARGIA KOMUNITATEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU



DANI BLANCO

### 18 | MIGUEL ANGEL LLAMAS "PITU"

kazetaria elkarrizketatu du Reyes Ilintxetak. Mintzatu dira kazetaritza konprometituaz, kartzelaz, torturaz, *Non dago Mikel?* dokumentalaz...

## Elkarrizketak eta erreportajeak

### 11 | UKRAINAKO GERRA "Energia Gutxitzearen Aroko" lehen gerra

Antonio Turiel eta Juan Bordera / Ctxc

14 | NET HURBIL

### Hats berria eman dio Korsikako burujabetzaren aldeko borrokari Yvan Colonnaren azken hatsak

Jenofa Berhokoirigoin

28 | FRANTZIAKO HAUTESKUNDEAK

### Aberatsenei egin opariekin oroitu dugu Macron

Jenofa Berhokoirigoin

32 | FRANTZIAKO HAUTESKUNDEAK

### Ukrainara begira ere bozkatuko da Xuban Zubiria

36 | HISTORIA | SANTURTZI 1967

### Butanoa lehertu zenekoa

Ander Leon

42 | KULTURA | UGER

### "Daramagun bidea 'zuk zeuk egizu' erabatekorantzkoa da"

Amaia Lekunberri

52 | ARGI-KONTRA | NATALIA SANCHA

### "Gerran emakumeak biktima gisa islatzen dituzte hedabideek"

Leire Regadas

**Jabetza**  
Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea

**Lehendakaria**  
Onintza Irureta

**Erredakzioa**  
Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estixu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Leire Artola, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Peru Iparragirre, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

**Diseinua**  
Maitane Gartzandia

**Argazkilaria**  
Dani Blanco

**Produkzioa eta inprimaketa**  
Antza S.A.L.

**Administrazioa**  
Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

**Salmenta**  
Karlos Olasolo, Olatz Korta, Pello Basurto

**Azoka**  
Mikel Olabide

**Idazkaritza**  
Aloña Soraluze, Bego Zuza

**Web garapena**  
Asier Iturralde

**Informatika**  
Iametzta interaktiboa, S.L.

**Lege gordailua**  
SS 837-2012

**ISSN**  
0213-909X

**Batzorde parekidea**  
72562 E

**GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO**

**Posta elektronikoak**  
komertzial@argia.eus  
komunitatea@argia.eus

**Telefonoa**  
943371545

**Gipuzkoa**  
Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria  
**Nafarroa**  
Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina, 31001 Iruñea

Ametzagaiña taldeko ideia da ARGIA honako enprekin batera:


**antza**  
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

**iametzta**

**ADUR** software productions

## Doan eta libre

ARGIAko edukia kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukia ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.

**OLATUKOOP**

EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA



**HANDS OFF ASSANGE**  
DON'T SHOOT THE MESSENGER

CONGRATULATION  
MR. & MRS.  
ASSANGE  
GOD BLESS



DON'T EXTRADITE ASSANGE

ESSE



# Ikusezinak

Erresuma Batuko Auzitegi Gorenak ukatu egin dio Julian Assangeri AEBetara estraditatzeko aginduaren aurka helegitea jartzeko aukera. Bere etorkizuna politikari baten esku dago: barne ministro britainiarra. Joe Bidenek, Barack Obamak eta Hillary Clintonek bezala, preso egotea nahi du. Assangek hiru urte daramatza inkomunikatuta Ingalaterrako segurtasun handiko espetxe batean. Ez lapurtzeagatik edo ekintza bortitzak egiteagatik, baizik eta dokumentu ofizialen informazioak argitaratzeagatik. Adierazpen askatasuna, kosta ahala kosta, praktikara eraman zuen, eta horregatik da garrantzitsua bera libre uztea. Kazetari bakar bat ere ezin da espetxean egon, ez Ingalaterran, ez Polonian. Irudian: Wikileaksen sortzailea eta Stella Moris bikotekidea kartzelan ezkondu ziren asteazkenean. "Julian ikusezin bilakatu nahi dute, baita ezkontza egunean ere; desagerrarazi nahi dute, jendeak bera ahantz dezan", adierazi du Morisek.

# Pobrezia energetikoa salatu dute ehunka lagunek kalean

AMAIA LEKUNBERRI ANSOLA

**S**akeoari ez, energia eskubidea dinamizak deituta, ehunka lagun atera dira Bilboko kaleetara martxoaren 26an. Pobrezia energetikoa salatu dute, eta arazoaren aurrean urgentziatzko neurriak har ditzaten exijitu.

“Argiaren prezioaren hilabeteroko gorakadei aurre egiten ia urtebete daramagun honetan, errekor berriei eta maximo historikoei buruzko albisteak kasik ohiko bilakatu dira. Atzera begira jarriz gero, ohartu gaitezke duela urtebete ordaintzen genuenaren bikoitza ari garela ordaintzen. Ondorioz, gero eta zailagoa egiten ari zaigu hilabete bukaerara iristea”.

Sakeoari ez, energia eskubidea dinamizak hitzak dira. Otsailaren 18an egin zuten lehen agerraldia, beren burua aurkeztuz, eta martxoaren 26an pobrezia energetikoaren aurka atera dira kalera. Bilbo eta inguruetako hainbat talde ekologistak, sindikatuk, etxebizitza sindikatuk, auzo elkartek eta gazte eragilek osatzen dute dinamika, eta xede argiarekin bat egin dute: pobrezia energetikoa salatzea. Arazoaren aurrean urgentziatzko neurriak exijitzen dituzte, otsaileko agerraldian azaldu zuten bezala: “Alde batetik, argindar-mozketak benetan gelditu daitezten eta argindarraren fakturari aurre egin ezin dioten pertsonen zorpetzea gelditzeko neurriak har ditzaten. Bide beretik, ezinbestekoa da elektriken aberastasunari

muga jartzea, besteak beste, nahi dituzten prezioak jar ditzatela oztopatuz”.

## GARESTITZE OROKORTUA

Bizitzaren garestitze orokortuaren baitan kokatu du energiaren prezioaren igoera dinamizak, ñabartuz gasa edota petrolioia ere izugarri igo direla azken hilabeteetan eta etxebizitzaren prezioak ere maila historikoak gainditu dituela. Dinamikaren arabera, “beharrezkoa da argiaren prezioaren igoera kokatzea sistema kapitalistaren markoan, zeina klase baxuenen pobretzearen eta prekarizazioaren bidez elikatzen eta aberasten den. Arrakala hori gero eta handiagoa da, eta planetaren eta pertsonen beharrianen mugak gainditzen ditu”. Gainera, arrakala horrek egiturazko gainontzeko desorekak ere areagotzen dituela azpimarratu dute, pobrezia energetikoa are larriago bilakatu gazteen, emakumeen, aniztasun funtzionala daukaten pertsonen, pertsona migratzaileen eta egoera irregularraren daudenen kasuan.

“Oligopolio elektrikoak aberastasunak pilatzen dituen bitartean, milaka herri-tarrek jateko erosketara egitearen eta argia piztearen artean erabaki behar dute, eta hori onartezina da”. Salaketa kalera eramango zuten joan den larunbatean, *Sakeoari ez! Energia eskubidea! Argiaren prezioaren igoeraren aurrean, denok kalera! lelopean.* ●



SAKEOARI EZ

## GORABEHERRAK



### GUGGENHEIMEKO LANGILEEK LORTU DUTE SOLDATAREN %20KO IGOERA

Bederatzi hilabete greban pasatu ostean, akordioa itxi dute Ferrovial azpikontratarekin: soldata gordina 23.500 eurotik gorakoa izango dute eta lanaldi partzialak lanaldi oso izango dira.



### IRUÑEKO KORRIKA TXIKIARI DEBEKATU DIOTE ERREPIDETIK IGAROTZEA

Hiriko errepideak “oztopatuko” lituzkeela argudiatuz, errepidetik joateko baimena ukatu dio Iruñeko Udalak haurren Korrikari. Ume, musikari eta erraldoiek espaloitik egin beharko dute ibilbidea.

# Begiaren hiria



ARITZ GALARRAGA

**L**ekurik bada non bat egiten duten lurrak eta urak, kontinenteak eta itsasoak, Europak eta Mediterraneoak, leku hori izango da Venezia, seguruenera. Urez inguratutako lur zatia izanik, noiz ez den urez estalia, sartzen da Mediterraneo Europa beraren etxe atarira. Venezia, uretatik sortutako hiria, uraren azpian hondoratuko dena, “hiriaren patua, azken finean, Atlantidarena izango dela”, Joseph Brodskyk *Ur-marka* ezin gozoagoan idatzi zuen bezala; “uretan dagoen hiri hau gaindituko lukeen gauza bakarra airean eraikitako hiri bat izango litzateke”. Hiri guztiak baitira zoragarriak ilunabarrean, baina batzuk beste batzuk baino gehiago.

Ez da hori Brodskyk hasieran izan zuen inpresioa: “Probinziaren batera iristen ari nintzela ematen zuen, leku ezezagun eta ez-deus batera, norberaren jaioterria beharbada, urte asko kanpoan eman eta gero”. Baina, pixkanaka, hiria erdigunera sartzen ari zitzaiola sentitzen hasi zen: “Zuri-beltzekoa zen, literaturatik, edo negutik, sortzen den zerbaiti dagokion bezala: aristokratikoa, ilun samarra, hotza, gutxi argizaturik, Vivaldiren eta Cherubiniren akordeak hor nonbait”. Hala pasa zituen bertan 17 negu, beste zentzumenen aldean, ikusmena fintzen zuela: “Zeren hau begiaren hiria baita; gainerako zentzumenek bigarren mailako paper ahula baino ez dute”. Eta, ez dezagun ahazt, begiratzen duguna gara, neurri batean behintzat.

Angel Errok gaztigitzen gaitu, hitzatzean: “Oker dabil Venezia gehiago jakiteko asmoz liburu honetara hurbiltzen dena”. Edo Rikardo Arregi euskaratzaileak: “ez, noski, gida liburu bat, ez turistak bisitatzeko ez dituzten leku bereziak bisitatzeko gomendatzen duen horietakoa, ezta bidaia liburua ere. Zalantza egiten dut Venezia bera den liburu honen gai nagusia”. Niri neuri balio izan dit maitatzen hasteko bestela estimu berezirik ez nion Venezia, Montesquieuren hitzekin esateko, arrainak soilik egon beharko lirakeen leku bat. ●



ADUR

## Memoria historikoa

Cabo Quilatesen omenezko gurutzea bota du Ernaik Barakaldon, eta Erandioko monumentu frankista ere eurek eraitsi dute. Ekintza horien ostean, Bizkaian ez da geratzen monumentu frankista publikorik, nabarmendu dutenez.

## Ukrainako gerra

Pablo Gonzálezek hilabete egin du Polonian preso, senide eta abokatuarekin hitz egin gabe. Rzeszóko presondegian dago kazetaria, espioitza delitua leporatuta. Behin-behineko espetxea agindu dio epaileak, maiatzaren 29ra arte.



# Emakumezko iturgina



ULA IRURETAGOIENA

**E**tzeko komuneko zisterna apurtu eta iturgin baten laguntzaren premia duzu. Hitzordua telefonoz lotu eta adosturiko orduan etzeko txirrinak jo du. Atea ireki eta emakume bat aurkitu duzu. Ziur naiz horrelako egoera baten aurrean, arrarotasun bat gorpuztuko zitzaizula, galdera eta lotsarekin batera. Iturginari komunerantz bidea egiteko gonbitea luzatu baino lehen, barne bakarrizketa asaldatuko zaizu: "Bera al da iturgina? Iturginaren laguntzailea izango ote da? Lana egiten jakingo ote du?". Gure barnean dauden aurreiritziek kolpatzen gaituzte horrelakoetan eta argitasunez ikusarazten dute genero rolen araberako profesio banaketak errealitate gordina direla.

Pasa den martxoaren 23an Donostian Emakume eraikitzaileak jardunaldia egin zen, eraikuntza sektorearen maskulinizazioaren bueltan hitz egiteko. Euskal panorama honakoa da: eraikuntzako gremioetan emakumeak %6a baino ez dira. Aparejadoreak –obran egoten diren eraikuntzako teknikariak– %3a besterik ez. Arkitektoen artean, egoera bitxia da, unibertsitateko ikaslearen gehiengoa emakumezkoa bada ere, profesional gisa bisatzen diren lanen artean gizonezkoak direlako nagusi portzentaje oso altu batean. Emakume arkitekto askoren ibilbidea izaten da irakaskuntza, elkargoratzeko behar ez duten obra-lanak edo administrazioko lanak.

Eraikuntzarekin erlaziozaturiko lanetan diharduten emakumeek diote beraien jardunean azterketa etengabearen bizi direla, lana burutzeko gai ote diren demostratzeko eskaerak pairatuz, deserosoak diren egoera eta komentarioak jasanez. Horregatik, eraikuntzako emakume langileen bateratzeak premia handia du, bizi duten esperientziak eta egoerak konpartitu eta salatzeko, elkarri babesa emateko sare bat sortzeko, emakumeen lana bistaratzeko, laguntza emateko oihan bat dirudien lan sektore honetan. ●



## Gonbidatu deserosoak

AMAIA LEKUNBERRI ANSOLA

**H**itzokin betetzen ari naizena bezalako espazioetan, iritzi kutsuko edukietan, gauden azpiordezkatuak emakume kazetariok. Iritzi artikuluen %20 inguru sinatu ohi dugu. Generoaren arabera, kazetaritzan aritzen garenok esateko daukagunari ematen diogun garrantziaren edota zilegitasunaren desoreka nabarmena da.

Patriarkatuak kazetaritzan duen islaren adierazleetako bat besterik ez da plazaratutakoa, desperekotasuna beste hamaika formatan ere azaleratzen baita. Horietako zenbait jasotzen ditu Martxoak 8aren bezperetan *El Salton* argitaratutako *¿Por qué el feminismo es más una lucha que una realidad en las redacciones?* erreportajeak. Tituluak aurreratzen dio hipotesi nagusia irakurleari: feminismoa ez da egikaritutako zerbaitek erredakzioetan, borroka baizik. Eta lehen lerroan mahaigaineratzen da horren arrazoi nagusitzat jotakoa: "Botere eta korporatibismo maskulinoak zaildu egiten dute praktika feministak eta kazetaritza feminista modu orokortuan txertatzea". Bat nator azpimarratutakoarekin. Halere, esango nuke badela, aipatutakoekin batera, parekidetasuna oztopatzen duen mekanismo sotilagoak –eta hortaz, indartsuagoa izan daitekeenik–.

Belen Gopeguiren *Tiroa kontzertuaren erdian: eleberrietan politikaz aritzeari buruz* (Txalaparta, 2011) lanaren hitzaurrean, erdigunera iristen diren bazterreko gorputzez mintzo da Eider Rodriguez. Hala gertatzen denean *stablishment*aren mekanismoa zein izan ohi den azaltzen du: "txuleta zatia" jaurti ohi die heldu berriei, eta horien arreta desbideratuta, une hori probesten du beharrezko egokitzapenak egiteko, presentzia berriarekin ere denak lehengo logika eta martxari eutsi diezaion. Modu horretan, oreka berri bat, aurrekoaren aldaera sotil bat, ezartzen du: "Aurrerantzean zapalduki keatzeko baimena emango zitzaien, baldintza batekin: biktima papera onartu behar zuten eta inolaz ere ez ziren ahaleginduko ez zegokien beste paper bat jokatzeko (...). Ordenan integratu nahi izango dira, ordena irauli behar ez izateko". Beste hitz batzuekin esanda: toki bat esleitzen zaie, baina mugatua eta edozein mugimendu aurreikusgarri bilakatzen duena, indarrean den ordena desorekatu dezakeen ororen suhesi.

Emakume gisa kazetaritzan betetzen dudak tokiaz hausnartzerakoan, hitzok oihartzun egiten dute nire baitan. Eta zentzu horretan, hainbatetan entzunagatik, ezagun zait *El Saltoko* erreportajearen iturri batek dioena: emakume izateagatik, ulertutzat jotzen dela guri dagozkigula zenbait gai (indarkeria matxista kasuak, Martxoak 8, "bigun" kontsideratzen diren gaiak...), horien jarraipena egin nahi ez badugu ere. "Dagokigun paperera" mugatzen gaitu sarri, hori ere paper erre bilaka daitekeen arren. M8ko gertakaria horren adibide: manifestazioaren jarraipena egiten ari nintzela garrasi batzuk aditu nituen bizkarrean; laupabost gizon kazetari ziren, kamerak eskuan, fokuratuta zeukaten espazioan genbiltzan gainontzeko kazetarioi baztertzeko esanez. Beren lana besteonaren gainetik balego bezala. Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna izanik, paradoxikoa iruditu zitzaidan, gutxienez. Eta ikaragarri argigarria ere bai. Keinu sinpleenek esplizitatu baitezakete egunerokoan inplizitua den logika oso bat: batzuen lana bigarren mailakoa eta ordezkagarria dela (baita "dagozkigun gaietan" ere), eta oraindik orain gonbidatuak besterik ez garelako festa honetan, adibidez.

Inoren festan egonik, ez ote da lizentzia lartxo hartzea zer eta gauza hauetaz hitz egiteko ahotza altxatzea, non eta iritzi artikulua batean. Beinke, zeinen esker txarrekoak izan daitezkeen gonbidatuak. ●



# %81,54

dira Usansolo herri independente gisa eratzearen alde bozkatu dutenak. Usansolon erroldatuta dauden 16 urtetik gorako 3.647 lagun zeuden deituak Galdakaoko Udalak antolatutako galdeketara, eta haietatik 2.302k (%63,12) bozkatu dute.

# 34

lagun atxilotu zituen Ertzaintzak martxoaren 24an, Ikasle Abertzaleak deiturik egindako ikasle greban. Gasteizko campusean izan ziren identifikazio eta atxilotetak.

# 5,6 milioi

diru publiko jaso du azken hogeitortan Hego Euskal Herriko Elizak, eraikinen kontserbazio kontzeptupean. Ondare historikoaren kontserbazioa kontzeptupean, %1,5 kulturala delakoa bideratzen du administrazioak Espainiako estatuan.

*“Espainian egon den kontsentsua hautsi eta erasotzailea, inbaditzailea eta nazioarteko zuzenbidearen urratzailea den Marokoko Gobernuaren aldean kokatu da Espainiako Gobernuak”*

#### ABDULAH ARABI

Marokok aldebakartasunez planteatutako Sahararen autonomia Espainiako Gobernuak ontzat eman izanaz aritu da Fronte Polisarioak Espainian duen ordezkaria.

LA BASE / PUBLICO (2022-03-21)



# “JANARI MERKEAREN GARAIA BUKATU DA”

#### EHNE NEKAZARI SINDIKATUA

Nafarroako esne-ekoizle talde batek esnea lurrera bota zuen Iruñean, joan den asteko ekintza batean. Esnearen salmenta prezioen etengabeko beherakada salatu eta igoera aldarrikatu dute.

2022-03-23

*“Garraiolari autonomoa desagertu egingo da gaur egungo baldintzetan”*

#### JON ALTUNA

Euskal Herriko garraiolari autonomoen Hiru sindikatuko ordezkaria da Altuna. Garraiolarien grebaren aurrean, hobariak hitzeman ditu Espainiako Gobernuak, baina Hiruren ustez ez dira konponbidea eta Jaurlaritzaren inplikazioa eskatu du.

NAIZ IRRATIA (2022-03-22)



## TEKNOLOGIA

# Ezagutza sortzaileak



DIANA FRANCO

**E**zagutzak –tartean teknologiak– eta kulturak oso harremanduta daude, eta sortzen diren lekuei eta han dauden harreman moduei lotuta daude. Belaunaldiz belaunaldi saiatzen gara gure bizitzetan esanguratsua izan dena eta gizakion ongizaterako beharrezko bezala ulertu duguna jasotzen hurrengo belaunaldiei eskaintzeko, oparia bailitza. Ezagutza norbereganatzea, ordea, ez da soilik memoria kontua, memoria oso garrantzitsua bada ere. Paulo Freire pedagogoak hezkuntza bankarioa deitzen zion informazioa buruetan sartzeko saiakerari, bankuekin eta diru gordailuekin analogia eginez. Haurren buruetan informazio deposituak sartzeara bilatzen duten hezkuntza ereduak ez dute sortzen ezagutza bereganatzeko prozesu bat.

Ezagutza norbereganatzea eraldaketa prozesu bat da, esperientzia kontu bat. Datuetatik informaziora, eta informaziotik ezagutzara igarotzea ez da solik eduki kontua. Saiakera dakar berarekin.

90eko hamarkadan, enpresa munduan oso famatuak egin ziren enpresen ezagutza kudeatzeko ahaleginetan Nonaka eta Takeuchi, SECI ereduarekin: Socialization, Externalization, Convination, Internalization (Gizarteratzea, Sistematizazioa, Nahasketa, Barneratzea). SECI ereduarekin honako ideia jaso zuten: pertsona batzuk sistematizatu eta gizarteratu duten ezagutza geureganatzeko, esperimintatzea da bide bakarra. Esperientziaren bidez, geure izaerarekin eta aurreko ezagutzekin nahastuko dugu informazio berria, eta orduan, informazioa izatetik ezagutza izateko bidean izango gara, ezagutza barneratzeko bidean.

Orain dela zenbait urte, Tabakalera Hirikilabs-en hartu nuen parte hainbat irakasleekin batera. Landu genuen zelan bihurtu hezkuntza espazioak esperimintatzeko, saiatzeko eta ezagutza sortzeko espazio, zelan igaro hezkuntza bankariotik beste eredu batera. Ez da erantzun erraza, aldagai asko daude bidean, baina orduz geroztik ikasleak ezagutza sortzaile gisa ikusten ditut, eta irakasleak euren bidai-lagun onen moduan, prozesu horretan. ●

## NAZIOARTEA



NRC

## Lehen eta bigarren mailako laguntza humanitarioak

**AXIER LOPEZ**

**B**urkina Faso jasotzen ari den laguntza humanitarioaren %70 egun batetik bestera desagertu liteke, Ukrainako krisiari erantzuteko baliabideak “birbanatzearen ondorioz”. Hori ondorioztatzen da, behintzat, Oxfam, Munduko Medikuek, Gosearen aurkako Ekintza eta Errefuxiatuentzako Norvegiako Kontseilua GKE ezagunen aurreikuspenak irakurri zuten gero.

GKE horiek argitaratu duten analisiak azpimarratu duenez, azken urteotan Burkina Fasoko 1,7 milioi pertsonak etxetik (eta, beraz, bizibidea) alde egin behar izan du muturreko indarkeriaren ondorioz. Pertsona horiek beste zonalde batzuetan ezarri dira “modu prekarioan”; laguntza humanitaria ezinbestekoa dute. Erakunde horien kalkuluen arabera, Burkina Fasoko hiru milioi pertsona daude elikagaiak lortzeko zailtasunak dituztenak. 2021erako 1.700 milioi dolar hitzeman zituzten Afrikako Sahel-erako laguntza humanitariorako, eta 700 baino ez dira iritsi. 2022rako, laguntza eman izan duten herrialde batzuek ohartarazi dute haien ekarpenaren zati bat Ukrainako krisira bideratuko dutela, GKEetako arduradunek gogorarazi dutenez. Laburbilduz, Mendebaldearen promesak ez dira betetzen, Afrikaren premiak handitu egiten dira, eta baliabideak, oro har, murriztuak doaz.

Ez da ahaztu behar urtarilaren

24an batzar militar batek hartu zuela boterea Burkina Fasoko, azken urte eta erdian Malik eta Gineako Errepublikak hartutako ereduari helduta: militarrek agintean, estatu kolpe (ustez) ez odoltsu baten ondoren eta herritar batzuen babesarekin.

Juan Agulló analistak dioenez, Burkina Fasoko estatu kolpearen oinarrian tokiko Al-Qaedaen aurkako gerra eta Sahel eskualde osoan dagoen ezegonkortasun geopolitikoa daude. Ezegonkortasun hori antzinako buruzagi kolonialen ekintzek areagotu dute. 2014az geroztik, Frantziak “terrorismoaren aurkako” Barkhane misio militarra martxan du Burkinan eta inguruko herrialdeetan. Urteen poderioz herritarren artean eragindako menpekotasun irudipenak nahigabe handia eragin du.

Frantzia, ofizialki, joan den mende-ko 1950eko hamarkadatik 1960ko hamarkadara bitartean irten zen Afrikatik, gogoz kontra. Mende erdi geroago, baina, oraindik egitura politiko, ekonomiko eta kulturala salbatzea lortu du, bere burua bere kolonia ohien zaindaria gisa aurkeztuta, pragmatismoaren eta neokolonialismoaren izenean.

Laguntza humanitaria eta esku-hartzeko militarrek batera datoz. Sarri, lehen kolonizatu zituena, orain laguntza ematera (eta ukatzera) doakie. Afrikan klasiko bat, oso bizirik jarraitzen duena. ●

# “ENERGIA GUTXITZEAREN AROKO” LEHEN GERRA

Errusiarrek Ukraina inbaditu zutenean, gerra garaia hasi zen, eskasiaren aurka. Errusiaren eta Europaren arteko haustura energetikoak herrialdea hondoratuko luke, baina baita kontinentea ere. Amerikako Estatu Batuak bakarrik aterako lirateke onuradun.



📷 ANTONIO TURIEL ETA JUAN BORDERA  
**ctxt** CONTEXTO Y ACCION

**2** 022ko otsailaren 24an, tropa errusiarrek Ukraina inbaditu zuten. Errusiar bonbak erortzen hasi zirenean, aro berri bat inauguratu zen. Europaren bihotzeko gatazka beliko berriak ustekabean harrapatu gintuen, baina ez gintuen hainbeste harritu behar.

Asko hitz egin da Errusiaren inbasioaren motibazio geopolitiko eta geostrategikoei buruz, Vladimir Putin hain eraso ausartzera eraman duten arrazoiei buruz. Normalean, ankerkeria horren zergatia ulertzen saiatu da, justifikatzen baino gehiago. Donbass aberats eta errusofiloaren anexioa, Itsaso Beltzaren kontrola, Kieven gobernu otzan bat jartzeko asmoa edo NATOren hedapen apurra geldiaraztea. Arrazoi horiek, zalantzarik

**Gas errusiar  
merkeagoz ederki  
hornituta, ez legoke  
ia merkaturik  
gas likidotu  
amerikarrentzat**

gabe, pisu handia izan dute Kremlinen esku gupidagabearentzat. Baina bada faktore bat eztabaida honetan guztian ia arretarik jarri ez zaiona: energetikoa.

Bai, nazkatu arte hitz egin da, bai-

na arin, Europak Errusiarekiko duen mendekotasun energetiko izugarriaz, Kontinente Zaharrerako gas-fluxua gutxitzeak izango lukeen inpaktuaz edo Errusia Alemaniarekin zutenean Itsaso Baltikoaren bidez lotuko lukeen Nord Stream 2 gasbide berriaz. Baina eztabaida horiek guztiek gatazka belikoaren ondorioak azaltzen dizkigute. Ez digute gerra honen kausa energetikoei buruz hitz egiten. Ez berehalako kausez, baizik sakonagoak, erradikalagoak eta lurpekoak direnez.

Errusia da petrolioaren *peakoil* edo zenitari buruz argi eta garbi hitz egiten duen herrialde bakarrenetako bat. *Peakoil* unean, petrolioaren ekoizpena teknika, ekonomia eta fisikaren gailurrera iristen da, eta ezinbestean

gainbehera egiten hasten da, nahiz eta hori saihesteko nahi beste inbertsio, teknologia eta berrikuntza gehiago egin. Lehenago egin zituen beste adierazpen batzuen ildoan, 2021ean Errusiako Energia ministroak aitortu zuen Errusiako petrolioaren erauzketa ez dela inoiz pandemiaren aurreko mailetara igoko, eta zintzotasun-keinu hori oso gutxitan aurkituko dugu Mendebaldeko edozein instantzia publikotan. Norabide berean, jakina da Errusian gas naturalaren ekoizpena ia geldidagoela dela bi hamarkada baino gehiagotik, eta azken urteetan gorakada iragankorra izan duela, Ekialdeko Siberiako azken eremuak linean sartu direlako. Eta ezin da ekialderago joan.

Mugen Mendea da honakoa, eta Errusian ondo jabetzen dira horretaz, beste herrialde batzuetan baino gehiago, eta publikoki ere onartzen dute. Kremliniko kabinetean badakite iragankorra dela baliabide mineralen ugaritasunak egun ematen dien oparotasuna, baliabide hauen buru izanik energia. Eta segur aski horrexegatik interesatzen zaio Errusiari etorkizunari begira ahalik eta ondoen kokatzea. Itsaso Beltzerako sARBIDEA kontrolatzea, etorkizuneko mehatxuak neutralizatzea, zerealaren munduko ekoizpena kontrolatzea... Helburu horiek guztiak pare parean datoz Errusiak izan dezakeen estrategia posible batekin, gure zain ditugun lehengaien erauzketa-gailurrei aurre egiteko.

Atlantikoaren beste aldean ere bere kartak jokatzeko dituzte. Fracking gasaren oparotasunak zenbatutako egunak dituela onartzen hasi diren honetan, Amerikako Estatu Batuei ere interesatzen zaie oparotasun hori aprobetxatzea, irauten duen bitartean. AEBek gas fosilarentzako duten lurreko merkatu bakarra Mexikokoa da, baina ez da nahikoa gaur egun duten ekoizpen-ahalmenarako; beraz, itsasontzietan garraiatu ahal izateko, azken urteotan, AEBek esponentzialki handitu dute gasaren likidotze-ahalmena, eta gaur egun, 50.000 milioi metro kubiko baino gehiagorekin, munduko lehen gas likidotuaren ekoizlea dira. Baina noski, gas likidotua askoz garestiagoa da, eta Europan bakarrik erosi ahal izango liekete. Hori da benetakoa arrazoia AEBak duela urte batzuk Nord Stream 2 gasbidea amaitzearen aurka agertu izateko, eta era guztietako oztopoak jarri dizkiote Errusiarren eta alemaniarren arteko itunari: gas erru-

siar merkeagoz ederki hornituta, ez legoke ia merkaturik gas likidotu amerikarrarentzat.

Baina nola justifikatzen zuen amerikar erraldioak beste bi herrialderen arteko arazo komertzialetan sartzeko auserdia? Orain arteko aitzakia Alemaniak (eta horren bidez Europak) Errusiarekiko gehiegizko mendekotasun energetikoa izatea saihestea izan da, argudiatzeko zaila zen arren, Europak Errusiatik ikatz, petrolio eta uranio aberastu kopuru handiak ere inportatzen dituelako. Orain gerrak askoz errazago jarri du. Eta horregatik Alemaniak, gogoz kontra, Nord Stream 2a jada ez dela irekiko onartu behar izan du, eta inbertsio handiak iragarri ditu birgasifikazio-planteetan lagun amerikarraren gas likidotua jaso ahal izan dezan... geratzen zaizkion urte eskaseta, ezinbestean gainbehera hasi aurretik.

---

## **Energia-gutxitze kaotiko eta desordenatu horretan, beti egongo da gerra bat Ukrainaren batean, Europan, Hego Amerikan, Asian edo Afrikan**

Baliteke beste motibazio gaiztoago bat egotea AEBei Ukrainako gerra bat interesatzeko. Energia Gutxitzearen Aroan ez da denentzat egongo. Ez lehen bezala behintzat. Eta Europan eta Errusiaren arteko interdependentzia ekonomiko handia dela-eta, Errusiari zigorrak ezartzen bazaizkio, Europak ere bere ondorioak jasango ditu, iparramerikarrek baino askoz gehiago.

Errusiako gasik gabe, Europa kolapsatu egingo litzateke astebete barru. Errusiarrek bidaltzen diguten gas kopuru izugarria ordezkatzeko gai diren hornitzaileen faltan, euroasiar erraldioetik gas-inportazioak bi heren murrizteko promesa soilik lortu liteke kontinenteak benetako deskalabru ekonomikoa pai-

ratuta, inoiz ikusi ez den bezalako uzkurdura ekonomikoa. Bere metabolismo sozialaren kolapso hau, ezinbestean desordenatua eta kaotikoa izango litzateke. Horregatik dira herabeak Europako zigorrak. Era berean, Europak ezin ditu bat-batean eten Errusiako ikatzarekin dituen loturak, ezta uranio aberastuarekin dituenak ere, eta nekez aurkituko luke bere petrolioarentzako ordezkorik. Errusia ekonomikoki hondoratuko litzateke zigor horiekin guztiekin, egia da, baina Europa ere hondoratuta legoke. Agian AEBetako norbaitek kalkulatu du egoera hori hobea izan litekeela, Errusiak eta EBk elkar ulertuko luketen beste eszenario bat baino, aliantza hau oso arriskutsua bailitzateke estatubatuarrentzat, oso isolatuta geratuko liritekeelako.

Kalkulu horietan agian aurreikusitako ez zituztenak, eratorritako ekintzak izango ziren: Inperioaren deskonplexutzearen jakitun eta pendulua dagoeneko ekialderantz doala dirudenez, Saudi Arabia pentsatzen ari da bere petrolioaren yuane-tan salduko dien txinatarrei. Baita India ere. Dolarra nazioarteko erreserbako dibisa gisa erabiltzea arriskuan dago, eta, ondorioz, amerikar inperioaren gainbehera azkartu da -batez ere Afganistanen erretiratu zenetik-. Amerikako Estatu Batuak ez daude Errusiako produktu energetikoen mende (horregatik sustatu dezakete lasai asko Errusiako inportazioak debekatzea), baina Errusiako burdin, nikel edo uranio aberastuaren mende daude. Eta Errusian, ez baitira idiotak, debekuekin erreakzionatu dute. Ziur aski hau ere ez zegoen aurreikusita.

Mundu benetan multipolarra jaiotzen ari da, eta, aldi berean, horrek guztiak desglobalizazioaren lehen hotsak dakarzkigu, epe ertainera saihetsezina zena. Baina, era berean, "ahal duena salba dadila" (edo "ahala baduena") fase baten hasieraren doinua ere badu, eta hondamendi hutsa izan daiteke, baldin eta gorrotoak eta mendekuek gaiztotzen baditu, eta horrek zaildu egin dezake partekatutako diren klima-erronka premiazkoak pilotatzeko beharrezkoa den lankidetzeta.

Energia Gutxitzearen Aroa ez zen bide samurra izango, hori bagenekien. Munduan kontsumitzen den oinarriko energiaren ia %90 ematen diguten energia iturri berriztaezinak (petrolio, ikatza, gas naturala eta uranio) bat-batean gutxitzen hasteak ez zuen ezer onik



iragartzen. Atzeraldiaz mintzo ginen, langabeziak, matxinadez ere bai. Baina gero eta argiago dago gerra gehiago ere izango direla. Gerrak bizi-baliabideak eskuratzeko eta gerrak laguntzeko, baina beste bat amildegira joaten laguntzeko.

Gerra horietako ostikadarik hilgarri eta eraginkorren artean elikagaien eskasia dago. Ohartarazi genuen (gatazkaren aurretik) nola fosilizazioak (erregai fosilen mende jartzeak) eta nekazaritzaren industrializazioak elikagaien mundu mailako krisi larri baten atarira eramana gintuzten: orain krisi hau larritu dute gatazkak, zigorrek eta Errusiak Europako aletegiaren (Ukraina) gainean egindako kontrolak.

Zereal eskasiak arazo larriak iragartzen ditu Egipton, Marokon, Tunisian, Aljerian... Europarentzat funtsezkoak diren herrialdeetan. Hauetan jada 2011n ezagutu zituzten Udaberri Arabiarrak, elikagaien garestitzeak eraginda. Horri edateko ura eskuratzeko zailtasuna gehitzen bazaio, Egiptoren eta Etiopiaren arteko gatazka ikusiko dute, Errenazimentuko Presa dela-eta. Ikus ezazue Hego Amerikako, Ipar Amerikako, Europako edo Afrikako eremu zabaletan eragina izaten ari den lehortea, kaos klimatikoaren ondorioz. Eta gehitu horri lehen Errusiak prezio merkean ematen zizkion baliabide mineralekiko menpekotasun osoa duen Europar Batasuna, orain beste leku batzuetan bilatu behar duena. Isuri baita ere botere ekono-

---

**Baina beste energia-gutxitze bat posible da. Modu bat, zeinak onartuko dituen planetaren mugak eta gizaki zibilizatuaren gehiegikeriei mugak jarriko dizkien**

mikoek babestutako populismo tanta batzuk eta manipulazio mediatiko gero eta handiagoa. Hauspotu konfinamenduan jada sentitu ziren hornigairik gabe geratzearen beldurrak, eta astindu gogor hainbat astez, Mendebaldeko klase ertainari desagertzeko beldurra handitzen zaion bitartean, prekarietatearen eraginez. Ikus ezazue nola horrek guztiak militarismoaren aparra igorazten duen, eta gero edaria bero-bero zerbitzatzen den. *Et voilà*: formula horri esker, Europako herrialdeak gerretan ere sartzea lortuko dugu, jada ezinezkoa den bizimoduari eusteko bizi-baliabideak ziurtatzea bilatuz. Eta gainera, hedapen militar hori saldu egin behar da,

bere burua defendatzeko dela esanaz (edo hori uste izango du ikus-entzule europar ertainak).

Ukrainako gerra ez da azkena: Energia Gutxitzearen Aroko lehena da, haustura puntua markatzen duena. Gutxitze hori, era azkar eta koordinatuan egiten ez badugu, ukalondoka izango da, eta herrialde batzuek besteak zapalduko dituzte, planetaren muga biofisikoen aurka talka egin dugula onartzeari uko egiten dioten gobernuen zintzotasunik ezagatik. Energia-gutxitze kaotiko eta desordenatu horretan, beti egongo da gerra bat Ukrainaren batean, Europan, Hego Amerikan, Asian edo Afrikan. Oraintxe bertan beste 17 gerra daude aktibo, lehen munduko egunkarietako azalak hartzen dituen honez gain (bartzuetan azkenaren ataria dirudiena).

Baina beste energia-gutxitze bat posible da. Beti izan da posible, eta hala da oraindik. Modu bat, zeinak onartuko dituen planetaren mugak eta gizaki zibilizatuaren gehiegikeriei mugak jarriko dizkien. Modu bat zeinak onartuko duen aurrean daukaguna ez dela arpilatu beharreko etsaia, baizik eta indarrez bersarkatzea hobe genukeen neba. Hautsi dezagun gurpil gaizto hau eta kooperatu dezagun guztiontzat berandu izan baino lehen. Gerrarik ez. Zorigaitzokoak bitez gerrak eta gerrak egiten dituzten gizatarrak. ●

Jatorrizko artikulua:

*La primera gerra de la era del descenso energético* ([www.ctxt.es](http://www.ctxt.es))

# HATS BERRIA EMAN DIO KORSIKAKO BURUJABETZAREN ALDEKO BORROKARI YVAN COLONNAREN AZKEN HATSAK

Zendu da korsikar independentista, 61 urterekin, martxoaren 2an beste preso baten partetik pairatu zafraldiaren ondorioz. Presoa biziaren eta heriotzaren artean zela jakin bezain laster zabaldu zen *Statu francese assassinu* mezua Korsikan barrena, Frantziako Gobernuaren ardura lehen lerroan jarriz. Konpondu gabeko arazo politikoa Parisen agenda politikoan kokatzea lortu dute azken asteetako protestek eta korsikarren gehiengoak aspalditik eskatzen duen autonomia estatusa ere mahai gainean jarri du Frantziako Gobernuak. Haserrea eta pena nagusi dira irlan.

## JENOFA BERHOKOIRIGOIN

**M**artxoaren 21ean zendu da *Cargeseko artzaina*, hemeretzi egunez koman egon ondoren. 4.000 lagun inguru batu dira 23 gauean, Ajaccioko aireportu inguruan, irlara itzulitako gorpuari azken harrera eta agurra egiteko. Milaka jende, Korsikako banderak ehunka, eta isiltasuna nagusi gorpua zeraman autoa jendeen artean pasatzerakoan. Ehunka ziren 25ean ere, ehorzketen kari.

Martxoaren 2an pairatu zituen Yvan Colonnak zortzi minutu luzez beste preso baten ukaldi bortitzak eta urkatze saiakerak, presondegiko zaindariak berantean –berantegi– konturatu ziren arte. *Statu francese assassinu* esaldia nagusitu zaie burujabe izateko eskubidea zangopilaturik duten irlan; eta lehen lerroan jarri da berriz auzi politikoa.

Ez da bakarrik karrikatik ohartarazi Frantziako Estatuaren ardura; Korsikako instituzioetatik ere bai: “Estatua da lehen arduraduna, ardura astuna dauka eta hein anitzetan, gainera”, Gilles Simeoni Korsikako gobernuburuaren hitzak dira. Ongi ezagutzen du Colonna hautetsi autonomistak, urteetan haren abokatu izan delako.

Colonna bizia eta heriotzaren artean zela jakin bezain laster sutu zen isla: manifestazioak, protestak, okupazioak zein blokeoak biderkatu zituzten. Indarkeriaren erabilpenari lekua eginez, barrikadez eta molotov koktelez josiak izan dira martxoko gau andana. Hautetsi eta herri-tarren ihardokipenei begiratzuz gero, ohikoa den indarkeriaren salaketa tinkorik ez da egon, eta giroa baretzeko baldintza gisa ia denek dituzte lehen lerroan jar-

tzen Frantziako Gobernuak auzi politiko horri begira eman beharreko urratsak.

Hilabeteko hogeita bigarrean haatik ez da barrikadarik osatu. Dilin-dalan, Cargeseko elizatik hil-kanpaiak zabaldu eta beiletan juntatu dira korsikarrak, pena eta samina inguraturik bizitzeko gisan. Baina giroa bero-bero izanik, laster piztu da berriro sua: Colonnaren ehorzketen une berean, CRS poliziaren Furiani herriko kuartelean Marseillaise Frantziaren ereserkia kantatzen aritu ziren, besta giroan, eta momentuaren bideoak kexua hauspotu du. Probokazio horrek berriz zabaldu zuen kale borroka asteburuan. Dolua markatzeko, korsikarren instituzioak banderak behehitu izana "akats" eta "iraintzat" jo zuten Frantziako Gobernuaren ordezkariak eta hori ere probokazio gisa hartu zuten abertzaleek.

**EHORZKETAK.**

Martxoaren 25ean burutu zituzten ehorzketak Cargese herrian. 61 urterekin zendu da korsikar independentista, 2003az geroztik presondegian egonik, bizi osoko kartzela zigorra betetzen.

JULIEN DE ROSA / AFP

**SALBUESPENEZKO LEGEDIAK  
ONDORIOZTATURIKO DRAMA**

*Gloria à tè Yvan* pintadek estali dituzte paretak eta seguruenik Colonna atxilotzerakoan sortuak ez zirenek eginda-koak dira anitz. Uharteko kolegio eta lizeoen blokeoak ditugu horren froga. Gatazka politikoa ez da konpondua, Parisen lehentasunetan ez bada ageri ere.

2003ko uztailaren 4an atxilotu zuten Olmeto herrian Colonna, lau urtez sasian egon ondoren. 1998ko otsailaren 6an Claude Erignac prefeta tirokatu eta hiltzeagatik bideratu inkestan bere izena aterata, gordetzeko hautua egin zuen. Une oro bere errugabetasuna adierazi izan badu ere, bizi osorako kartzela bideratu zioten 2006ko, 2009ko eta 2011ko epaiketetan. Eskubideek dakartena bete eta Korsikara hurbiltzeko eskaerei etengabea ezetza bideratu izan dio Frantziak. DPS bereziki zainduri-ko estatusa zuela eta, horrek eragotzi

---

**Darmanin ministroak  
autonomiaz  
hitz egiteko eta  
"2022 bukaerarako  
negoziagai litzatekeen  
proiektu bat" lantzeko  
konpromisoa hartu du**

egiten zion Korsikako kartzela batera hurbiltzea.

Hainbatetan eskatu zuen DPS estatusa kentzeko, baina beti ezezkoa jasoz ordainean. Azkenean, giroa baretzeko,

estatusa kentzea onartu zuen Jean Castex Lehen ministroak martxoaren 8an, bere osasun egoera larria zela eta. Anitzek "probokaziotzat" jo zuten, koman sarturik zegoela DPS kendu eta preso atxikitzeko erabakia. Nabarmentzekoa da erabaki hori Emmanuel Macron, edo zehazkiago presidentearen kabineteko zuzendariaren esku artean zela. Patrick Strzoda du kabinete zuzendari, eta hori 2011 eta 2013 urteen artean Korsikako prefeta izandakoa ere da, hots, "denbora berean epaile eta alderdi izandakoa", Colonnaren abokatuaren hitzetan.

"Zuzenbidea alde batera utzirik politikoak bideratu du erabakia" Erignac prefetaren heriotzagatik preso diren hiruen kasuan, abokatuaren iritziz. Azkenean, afera berarentzat kartzelan diren Pierre Alessandri eta Alain Ferrandiri DPS estatusa kendu eta "uda baino lehen" Korsikara hurbilduko dituztela jakitera eman du Frantziako Gobernuak.

Erruduntasunaren aitortzaren alde borrokatu izan da etengabean Colonna, baina ez zaio horrelakorik sekulan aitortu. Hobengabetasun presuntzioa ez zitzaiolako errespetatu, Giza Eskubideen Europako Auzitegira ere jo zuen 2013an, baina azken horrek atzera bota zuen eskaera.

Irlara bisita egin eta “elkarrizketarako irekita” zegoela plazaratu zuen Gerard Darmanin Barne ministroak martxoaren 16an. Abertzaleek hiru eskakizun dituzte: “Egia eta justizia” Colonnaren erasoari dagokionez; preso politiko guztien auzi politikoari dagokionez “aro berri batean sartzeko urratsak”; eta Korsikaren ezagupen instituzionalari buruzko elkarrizketa – “[Korsikaren] autonomiak sostengu handia dauka gaur egun; auzia ez da tresna juridiko edo politiko horri buruzkoa, benetako galdera da zein osagai ukango dituen autonomia horrek... hori edo hura, edozer sartu dezakegula estatus horren baitan”, Jean-Christophe Angelini Korsikar Nazioaren Alderdiaren idazkari nagusiaren hitzetan-. Frantziako lehendakartzako hamar bat egun eskas direla, ez da dudarik presidentearen aulkiak eragina daukala


auzi horretan. Hori horrela abisua eman du Angelinik: “Benetako bake prozesua behar dugu, ez dadila hauteskundeendeen aitzineko elkarrizketa soila izan”.

### MACRONEN MESPRETXTUA, HASERREAREN ONGARRI

Korsikaren burujabetasunaren auziak konpondu gabe segitu arren, badu aspaldi ez dagoela Parisen agenda politikoan –ez behintzat hauteskunde garaietatik kanpo-. Are gehiago, 2017an boterera helduz geroztik korsikarrei begira Macronek izan “mespretxua” nabarmentzen du Olivier-Jourdan Roulot kazetariak *L'agression d'Yvan Colonna embrase la Corse* (“Korsika sutu du Yvan Colonna erasotzeak”) dokumentalean. Presidente izendatu eta urte betera egin zuen bisita irlara eta bertakoa xeheki antolaturik eta bide orria bi aldean artean finkaturik bazuten ere, erabakitakoaren gaintik pasa eta Erignac prefetaren heriotzaren 20 urteen oroitzarrea agertu zuen Jean-Pierre Chevenement 1998an Barne ministro izandakoarekin. Korsikarrei min egindako gertakizuna izan zen: “Mezua ez zen begi onez hartua izan, ez zen aro berri baten sinonimo eta

ukandako gutxiespen eta mespetxu jarreraren ordainsaria pagatzen du orain”, Roulot kazetariaren hitzetan.


Azken pauso instituzionala 2015ean eman zuen François Hollande ezkerreko presidentek, 2018rako estatus berezidun Korsikako Lurralde Elkargoa sortzeko bidea irekiz. Macron presidente bilakatu eta hilabete batera garaile ateratu zen lehen aldikoz Pè a Corsica koalizio abertzalea, lurralde bozketan botoen %45,36 lortuz lehen itzulian –hori gehitu behar zaizkio bakarrik aurkeztu zen Rinnovuk egin %6,69-. Bost aldarrikapen ditu koalizioak: preso politikoaren hurbilketa eta ondotik amnistia; korsikeraren koofizialtasuna; Korsika Frantziako Konstituzioan sarraraztea; egoiliar estatutua –etxebizitza bat erosi ahal izateko minimoki bost urtez Korsikan bizi izanaren baldintza planteatzea– eta autonomia estatus sendo bat. Baina elkor segitu du Macronek. Abertzaleek lehen indarra izaten segitzen dute gaur egun ere, 2021ean berriro lehen kokaturik. Azken aldiaren ez dira baturik aurkeztu eta lau zerrenda abertzaleen artean %57,77 lortu dute –2017an baino zazpi puntu gehiago-. Hain zuzen, autonomis-



### KALE BORROKAK.

Beste preso batek jipoiturik, koman sartu zen Yvan Colonna korsikar independentista martxoaren 2an. Gertakizunak haserrea eta mina eragin zuen irlan, eta “*Statu francese assassinu*” leloa lehen lerroan jarritz, kale borrokak egon dira hainbat gauez.





### COLONNAREN GORPUA.

Martxoaren 23an heldu zen Korsikara presoaren gorpua. Ajaccio hiriko aireportu inguruan 4.000 lagun batu ziren, isiltasunean, azken harrera eta agurra bideratzeko.

ta ala independentista zein autonomia heinari buruzko eztabaidak, zatiketa badago abertzaleen artean.

Badirudi azken egun hauetan lerroak mugitu direla: Darmanin ministroak autonomiaz hitz egiteko eta "2022 bukaerarako negoziatzeko litzatekeen lehen proiektu bat" lantzeko konpromisoa plazaratu die korsikarrei. Macronek ere Konstituzioa moldatzeari atak ireki dizkio, hori beharrezkoa izanik autonomia bideratzeko. "Lehen urrats historikotzat" jo ditu Darmaninen hitzak

Simeonik, azpimarratuz "berrogeita hamar urteko gatazkari bukaera emateko beharra".

1768az geroztik Frantziaren menpe da irla. Korsikar abertzaletasun modernoaren lehenengo taupadak XIX. mendearen bukaeran eta XX. mendearen hastapenean azaleratu ziren. 1970eko hamarkadatik aitzina gogortu egin zen gatazka, talde armatuak sortuz eta parean, errepresioa areagotuz. FLNC talde armatu independentista osatu zuten 1976an, 2014 urtea arte iraun zuena.

1980ko hamarkadaz geroztik, instituzio eta ardura propio batzuk lortu izan badiu ere Korsikak, inoiz ez du independentzia ala gehiengoak eskatzen duen autonomia eskuratu.

Martxoaren 16an agiria plazaratu du berriro FLNck, Frantziako Gobernuak "elkor" segituz gero, "gaurko kale borroka bihar sasia pasatako gau bihurtu daitezke" abisua argiki plazaratuz. Kapitulu berri bat ireki da eta ikusteke dago zer bilakaera hartuko duen Korsikako errealitate politikoak. ●



**ZINKUNEGI  
OPTIKA**

**NINA MÛR**  
eyewear

*Egurrezkoak  
Eskuz landuak banan-banan  
Jasagarriak  
Arinak eta erresistenteak  
Kalitate handiko eguzki-lenteak*



Hernani 23, 20004 Donostia • 943 420 624 • zinkunegioptika.com

# Miguel Angel Llamas Pitu

KAZETARI DESEROSOA



## ZABALZAREN KASUA ERREFERENTE BIHURTU DA EUSKAL GIZARTEAREN PARTE BATEK SUFRITU DUENA ERAKUSTEKO



Komunikabide hegemonikoetan ertzean edo kanpoan gelditzen diren herri mugimenduen albisteak plazaratzen ditu Ahotsa. info-k. Horregatik botereak ez du maite. *Pitu* horretan ari da lanean duela 20 urte baino gehiago. Iaz Amaia Merinorekin batera hamar urtetan egindako *Non dago Mikel?* dokumentala estreinatu zuen. Torturari buruzko lana, torturatua izan den pertsona batek sinatua.

 REYES ILINTXETA  DANI BLANCO

### **Nondik datorkizu herri mugimenduetan militatzeko grina?**

Gaztetxo ginela zerbait falta zitzaigula sumatzen genuen herrian, Noainen. Euskarak, adibidez, oso presentzia gutxi zeukan herrian eta horregatik sortu zen Gau Eskola, gerora beste ekimen askoren motor bilakatu zena. Han hasi nintzen euskara ikasten. Gero, institutu garaian, Iruñean, intsumisioa, presoekiko elkartasuna eta ikasle mugimenduak ezagutu eta haietan erabat murgildu nintzen. Tentsio handiko eta indarkeriaz betetako urteak izan ziren. 16-17 urte nituela nire koadrilia osoa atxilotu eta guztiak torturatu zituzten kale borrokarengatik. Bakar batzuk libratu ginen orduko hartan, baina

gertutik hasi ginen ezagutzen zer diren sakabanaketa, espetxea....

Herrian gazte mugimendutik bultzatutako eremu bat behar zela ikusita, hasi ginen txosnak antolatzen. Udalarekin tentsio handiena zegoen unean, 1999an, ETaren su-etenean, zinegotzi bati lehergailu bat jarri zioten etxean. Haren seme bat gure koadrillakoa zen eta guri leporatu ziguten atentatua, nahiz eta guk batera zerikusirik ez izan. Gertatu zenean ni klasean nongoen, beste bat lanean... hala ere, atxilotu gintuzten. Gainera oso modu publikoan egin zuten dena. Oso identifikatuak geunden herrian eta atxiloketa denen bistan eta telebista kameran aurrean egin zuten. Hiru egunez torturatu

gintuzten gelditu gabe. Haien helburua zen guk ekintza hori gure gain hartzea eta ez zegoen modurik beraiek nahi zutena ez emateko.

### **Nola gogoratzen duzu tortura?**

Batez ere beldurra dut gogoan. Ikaragarria. Bakarrik nengoela eta inoren laguntza ez nuela jakitea etsigarria zen. Haiek asko ziren eta ni baino helduagoak, ni baino askoz prestatuagoak. Banekien zer gertatuko zen eta gauza horiek guztiak joan ziren gertatzen hurrenez hurren: mehatxuak, kolpeak, poltsa... Denboraren nozioa galdu nuen erabat. Egunen batean atxilotuko gintuztela aurretik jakin arren, 19 urterekin nire bu-



# Miguel Angel Llamas Montoya, Pitu

NOAIN, 1980



Hainbat herri komunikabideren sortzailea eta kazetaria. Eguzki Irratian hasi zen kartzelaren inguruko *Kateak apurtu* irratsaioa egiten. Horren ildotik, beste hainbat kiderekin batera, 2007an Apurtu.org plataforma sortu zuen. 2011n hau itxi eta eragileak atxilotu zituzten. Urte eta erdira kartzelatik atera eta Ateak Ireki agerkari digitalean aritu zen, hura ere 2014an itxi arte. Orduan Ahotsa.info ikusentzunezko hedabidea sortu zuten eta hor ari da egun lanean.

rua oso ahul ikusi nuen horri guztiari aurre egiteko.

## Horregatik nahiago izan zenuen erruduna zinela deklaratzeari?

Bai. Pentsatu nuen gerora aukera izango nuela probatzeko ni ez nintzela izan. Gauza pila leporatu zidaten eta urte asko eskatu zuten niretzat, baina, hala ere, argi neukan ez nuela inor *enmarronatu* nahi eta hori lortu nuen nola-baiteko negoziaketa hartan. Ni pozik geratu nintzen eta haiek behar zutena lortu zuten. Hamar egun besterik ez genuen eman espetxean. Nire irakasleak deklaratzera joan ziren, atentatuaren unean klasean nengoela esanez eta handik egun batzuetara fidantza jarri eta etxera.

Kartzelan poz-pez sartu nintzen eta arindu ederra hartu nuen jakitean koadrillako bakarrik bi geundela atxilotuta. Hala ere, Alcalá Meco espetxeko gazte moduluan egotea ikaragarria izan zen. Beldur handia pasa genuen guk ez genuelako giro hori ezagutzen. Gu *pringao* batzuk ginen eta ez geunden ohituta indarkeria giro horretara.

Oso atxiloketa mediatikoa izan zen su-eten garaian gertatzen zen edozein gauzarengatik harrabots handia sortzen zelako. Herria hautsita gelditu zen.

## Bigarren aldian NUPen atxilotu zintuzten?

Hala da. Egun bateko kontua izan zen. Euskararen alde egiten ari ziren mobilizazio baten erreportajea egitera joan nintzen Eguzki Irratirako eta amaitutakoan haiekin gelditu nintzen. Orduan iritsi zen Polizia eta ehun bat lagun bortizki eraman gintuzten komisaldegira. Oso gau gogorra izan zen.

Gazteagoa nintzenez ere bi aldiz jipoitu ninduen Poliziak Alde Zaharrean. Behin pilotakada batez kolpe itzela hartu nuen besoan eta ospitale-rama eraman ninduten. Beti suerte txarra izan dut eta horregatik beti uste izan dut kale borroka ez dela nirea.

## Hirugarren eta azken atxiloketa 2011n izan zen, webgune bat kudeatzeagatik?

Bai. Apurtu.org. Hori gertatu zen ETAK bere ekintzen amaiera iragarri eta zortzi egunera. Berrero komunikabide asko etorri ziren atxiloketa grabatzera. Ez genekien torturatuko gintuzten ala ez. Beldurtuta nengoen, baina tratua zuzena izan zen. Esan nuen ez nuela

deklaratu eta ez nuen torturarik salatu. Urte eta erdi egon nintzen Soto del Realeko espetxean lehendabizi eta gero Valdemorokoan. Espetxea beti espetxea da, baina adinarekin beste modu batez bizi izan nuen. Sentitzen nuen baliabide gehiago nuela egoera beste modu batez kudeatzeko. Ikasteko eta kirola egiteko baliatu nuen denbora. Preso komunekin ez genuen arazorik izan. Barruan askotan tentsioak sortzen dira droga edo tabakoarengatik, eta gu horietatik aparte ginen. Gainera haiek gurekin flipatzen zuten esaten genienean han geundela webgune batean, komunikabide batean, lan egiteagatik. Guk ez dugu inor hil, ez dugu ukitu arma bat bizitza osoan eta harrituta gelditzen ziren.

Azkenean epaiketarik gabe atera gintuzten, Auzitegi Nazionalako barneko liskarrak zirela eta. Zortedun naizela esango nuke, zentzu horretan. Barneratu dugu, nolabait, ezker abertzalean konpromiso politikoa duten militanteak espetxera joango direla, baina hori ez da inorentzako lekua eta arrasto sakona uzten dizu bizitza osorako.

## Zergatik dira beharrezkoak herri komunikabideak?

Herri mugimenduetan egiten diren gauzak askotan ez dira komunikabide handietara iristen, horregatik herri komunikabideekin bete behar ditugu ga-bezia horiek. Jatorri eta osaera desberdineko herri komunikabideak behar ditugu honetarako. Ez da gauza bera Euskal Herria Irratia edo Eguzki Irratia. Ez da gauza bera ARGIA edo Ahotsa.info, eta aniztasun hori oso aberasgarria da. Izan ere, guk Euskal Herrian daukaguna izugarria da. Espainiako Estatuko beste leku gehienetan ez dago halako sarrerik.

Guk fokua jartzen dugu herri mugimenduan, oso baliabide gutxirekin. Egun, Ahotsa.info-n, bi lagun lanean eta boluntario batzuk besterik ez gara, eta iristen gara iristen gareneraino. Hasieratik bideo formatua da gure apustua, jendeak begiekin eta irudien bidez ikus dezan zer gertatzen den Nafarroan.

## Mozal legearekin arazo asko izan duzue?

Asko, egia esan. Badakite oso ongi nola mugatu ekintzaileen lana. Kallean ekitaldirik egin nahi izanez gero hamar eguneko epearekin aurkeztu behar duzu eskaera eta edozein arra-



zoi bilatzen dute delitua edo falta administratiboa egiten ari zarela esateko. Eta mugatu dute, era berean, informazioa emateko eskubidea. Haien bertsioa zalantzan jar dezakezu irudi batzuen bidez, Altsasu auzian gertatu zen bezala, eta horrekin amaitu nahi izan dute. Guri isun asko jarri digute Poliziaren jarduera grabatzeagatik. Haien helburua da guk auto-zentsura egitea eta guk erabaki dugu horretan ez garela eroriko. Kasu batzuetan irabazi dugu eta besteetan, aldiz, ordaindu behar izan ditugu isunak. Oraindik ere baditugu batzuk ordaintzeko.

### **Orain eginen omen dituzten lege honen aldaketek zer uste duzu?**

Ez dut uste gehiegi aldatuko dutenik, estatuari beti etortzen zaiolako ongi aparatu errepresiboa izatea. Gure indarra dago jendearen erantzunean. Segun eta nori jartzen dioten isuna erantzun publiko handiagoa edo txikiagoa ematen da, eta haiek horren arabera jokatzeko dute.

Dena den, guk erabaki genuen ez girela kamikaze izango, isun gehiegi ezin

dugulako jasan, baina errealitatea erakusten saiatuko ginela geure burua zentsuratu gabe.

### **Dirua nondik ateratzen duzue?**

Bazkideak baditugu eta bezeroei ere ikus-entzunezko zerbitzuak eskaintzen dizkiegu. Honez gain, Euskarabidearen dirulaguntza jasotzen dugu euskarazko kazaritza egiteagatik eta proiektu zehatz batzuetarako aparteko diru iturriak bilatzen ditugu, *Non dago Mikel?* dokumentalerako, adibidez. Edozein modutan ere, gurea militantzian oinarritutako jarduera da.

### **Non dago Mikel? dokumentalarekin gertaera hauen bertsio definitiboa idatzi duzue?**

Senideek diote haien bertsioa islatzen duen dokumentua badela. Jendearen erantzuna itzela izan da: areto komertzialetan 16.000 lagunek ikusi dute; guk herri eta areto txikietan eginiko saioetara beste 5.000 lagun gerturatu dira; TV3n 359.000 ikusle izan ziren; eta orain, berriki, ETBk eman du eta 12.000

ikuslek ikusi omen zuten zuzenean, albisteetatik at ikusle kopururik handiena izan zuten saioa izan zen egun horretan.

Egia esan, ondo egindako lana da, baina zortea ere gure alde izan dugu. Donostiako Zinemaldian estreinatu zen oihartzun handiz. Gero, zinema aretoetara iristeko modua izan genuen pandemia garaian, pelikula komertzial berri asko ez zegoenean.

Iazko otsailaren 13an hil zen [Enrique Rodríguez] Galindo, Euskal Herriko Torturaren Aurkako Egunean bertan, eta gero gure estreinaldia etorri zen. Gainera, filma aurkeztu aurretik, *Público* agerkariak plazaratu zuen Juan Alberto Perote CESIDeko koronel ohia eta Pedro Gómez Nieto Guardia Zibileko kapitainaren arteko elkarrizketa, non onartzen zuten Mikel Zabalza torturen ondorioz hil zela.

### **Audio hori zergatik ez zenuten sartu filmean?**

Zalantzak izan genituen, baina azkenean erabaki genuen komunikabide indartsu bati ematea haiek zabaltzeko. Estatu osoko komunikabideak etorri ziren. Jendeak galdetzen zigun ea noiztik genuen hori, eta nik esaten nien urteak zirela hori etxean nuela, edozein unetan beste edonork ez ote zuten aterako beldurrez.

Senideek askotan esan dute beraien helburua ez dela inor espetxera bidaltzea, baizik eta jende guztiak jakin dezan benetan zer gertatu zen. Eta nik uste dut lortu dugula. Mikel Zabalzaren kasua erreferente bihurtu da euskal gizartearen parte batek sufritu duena erakusteko. Gure beste helburua zen torturaren gaia berriz mahai gainean jartzea, eta hori ere lortu da. Gogoan hartu behar da 2011tik ez dela tortura kasurik salatu Euskal Herrian. Belaunaldi gazteentzako tortura lehengo kontu bat da eta lortzen ari gara mugimendu sozial sendo bat torturaren aurka, aitortza eta erreparazioa eskatuz.

Alde horretatik zer gehiago eskatu al diozu dokumental bati? Eztabaida sozialetik haratago mobilizazioa ere lortu dugu. Audioak atera eta egun gutxira 3.000 lagun atera ziren kalera Iruñean torturaren aurka.

### Nola baloratzen duzu berriki eratu den Nafarroako Torturatuen Sarea?

Batzuetan gertakizunen neurria hartzea kosta egiten zaigu. Aurreko gobernuak abiarazi zituen memoria eta ikerketari buruzko hainbat ekimen, baina orain PSN dago gobernuan, eta Torturatuen Sarearen aurkezpenean egotearekin, nolabait PSNk onartzen du bere burua ere ikertua izan dadin. Ziurrenik haien asmoa da espediente bete eta hautsa harrotu gabe pasa dadin. Ez dut uste Eusko Jaurlaritzak eman zion dimentsioa emango diotenik, baina hala eta guztiz ere, Nafarroan orain bada herri mugimendu sendo bat ikerketa zientifiko eta independentea egitea eskatzen duena. Erakunde publikoek egiten ez dutena saiatuko gara egiten herritarrok.

Bestalde, harremanen alorrean egiten ari dena ere oso garrantzitsua da. Elkartea indar politiko guztiakin aritu da hizketan eta nik uste dut etorkizunean adostasun batzuetara iritsiko garela. Do-



kumentazioa desklassifikatzeko eskaera zabala ere egin da. Agian ez gara ados jarriko izenetan edo gertaeren deskribapenetan, edo zenbaki zehatzetan, baina gaur egun, jada, inork gutxik uka dezake hemen torturatu egin dela. Eta tortura izan dela zerbait sistematizatua, prestatua zegoena: bazen lege bat tortura ahalbidetzen zuena, epaile eta forentse batzuek beste alde batera begiratzen zuten... Hori ezin da ukatu.

### Gazteria nola ikusten duzu? Herri mugimenduen oraina eta geroa?

Nik uste dut beti egon direla gazte inplikatuak eta oso pasiboak. Orain esaten da gazteak gutxi mugitzen direla, baina kontuan hartu behar dugu haien pisu demografikoa asko jaitsi dela. Eta honekin batera azpimarratu behar da gazteriarri kolpe asko eman zaizkiola edozein disidentzia ideia burutik kentzeko. Asko estutu dira parte hartzeko esparruak eta gizartea gero eta indibidualistagoa da. Horregatik guztiagatik, nire ustez meritu handia dute mugitzen diren gazteek,

dena kontra dutelako. Eta pandemiaren are zailagoa izan dute azken bi urte hauetan.

Ni orain liluratzen nauena mugimendu feminista da. Agendan jarri dute feminismoa eta aurrerapauso itzelak ematen ari dira. Kulturaren ere mugimendu oso bizkorak gertatzen ari dira, eta formakuntza itzela duten gazteak dira gainera, baina haien pisu demografikoa gero eta txikiagoa da.

Dena den, uste dut ez dugula hain obsesionatua egon behar gazteriarekin gauzak aldatzeko. Mugimendu politiko eta sozialek kontuan hartu behar dute, nire ustez, 40-50 urte inguruko jendea, gure esparruetan inplika gaitezkeelako gauza asko ginez.

### Begira pentsiodunak, bestela.

Hala da. Argi dago. Bada belaunaldi bat hobekuntza handiak lortu zituena lan gogorra eginez, diktaduraren amaieran gainera, eta orain ez dute hori guztia galdu nahi. Beti borrokan egon den jendea da. Haiekin txantxa gutxi. ●

**HEMEN  
541.600  
LANPOSTU  
PREKARIO  
BAINO GEHIAGO  
DAUDE**

**Lan prekario gehiagorik ez!**

**Apirilak 6, 10:30**  
**La Casilla, Bilbo**

**ELA**  
EUSKAL SINDIKATUA



## Pablo González askatu



ASIER BLAS MENDOZA  
EHU-KO IRAKASLEA

Zaila da propaganda olatu erdian Ukrainako gerraren egunerokotasunean gertatzen ari dena aztertzea. Gurean hedabide gehienek *hooligan* moduko lerrokatze bat egin dute gertakari batzuk amplifikatuz, beste asko isilaraziz eta beste batzuk faltsutuz, histeria kolektiboa sortuz. Errusiaren inbasioa eta gerra salatzea beharrezkoa da, ukrainar herriarekin elkartasuna adieraztea bezala, baina atentzioa ematen du gehiegizko erreakzioak kasu honetan, inoiz tamaina honetako nazioarteko legediaren haustura bat edota agresio gerra bat bizi izan ez bagenu bezala.

Herrialde batek edo batzuek, erasorik jaso gabe eta NBEko babesik gabe, beste baten kontra egiten dituen erasoekin doktrina horretan bi mugarri garrantzitsu izan ziren: 1999an Jugoslaviaren aurka NATOk burutu zuen bonbardaketa eta 2003an AEBek Iraken aurka burutu zuten inbasioa eta gerra. Ondoren gehiago etorri ziren, hildako eta errefuxiatu kopuru handiekin.

Errefuxiatuen harira arriskutsua da zabaltzen ari den moral bikoitza. Mendebaldeko herrialdeetako zenbait telebistatan xenofobia eta arrazakeria azaleratu dira gerren eta errefuxiatuen arteko desberdintasunak justifikatzeko, erasoak jaso dutenen azal, ile eta begi koloreengatik edota *zibilizatu* graduagatik; ez omen da gauza bera Ukraina edo Irak erasotzea, eta ez omen dira gauza bera Ekialde Hurbileko errefuxiatuak edo ukrainarrak.

Poloniak argudiatu du Pablok bi pasaporte zituela atxilotu zutenean; antza delitua baita Errusian jaiotzea eta herrialde horretako aita eta pasaporte izatea

Halere, dena ez da xenofobia kontua. Bigarren Mundu Gerra amaitu zenetik NATO lehen aldiz sentitu du militarki eraso egin diotela. Mendebaldeak Ukraina bere eragin eta kontrolpeko lurralde gisa kontsideratzen baitu. Horregatik Josep Borrellek, EBeko Atzerri eta Segurtasun Politikako goi-ordezkariak, gerra adierazpen baten pareko hitzak bota zituen inbasio hasieran: "Inork ezin du eskatu gatazken konponbide baketsua. Inork ezin ditu erasotzailea eta erasotua maila berean jarri. Eta une honetan gure ondoan ez daudenak gogoratuko ditugu".

Horrek esplikatzeko du zergatik hainbeste baliabide jartzen ari garen ukrainar armadaren eskuetan. Munduan eraso egiten dieten asko daude eta ez gaude horiek armatzen, entrenatzen, aholkatzen eta inteligentzia militarreko informazio guztiak partekatuz.


Gerran gaude eta egoera honetan intentsitate baxuko demokraziak sufritu egiten du, adierazpen askatasuna murrizten da eta eskubide zibilak urratu egiten dira. Honen adibideak dira errusofobia olatu berria edo gure lagun Pablo González kazetariak bizi duen egoera. Artikulu hau idazten ari garen unean Pablok hiru aste daramatza atxilotuta Polonian bere abokatuarekin kontakturik izan gabe. Espioi izatea egotzen diote, nahiz eta ez duten inolako frogarik aurkeztu. Baina gerra egoeretan denak balio du: Poloniak argudiatu du Pablok bi pasaporte zituela atxilotu zutenean; antza delitua baita Errusian jaiotzea eta herrialde horretako aita eta pasaporte izatea.

Poloniako Gobernuak europar zuzenbide komunitarioa urratu du edozein diktadurak egingo lukeen maila berean eta horren aurrean EAEko ordezkariak eta, bereziki, Estatu espainiarrekoek, jarrera oso epela erakutsi dute. Gerra egoeran daude eta akusazio larri bat tarteko ez dute eskubide zibilen defentsarako gogorik. Imajina dezakezue zein kanpaina mota piztuko litzatekeen antzeko atxiloteta eta eskubide urraketa Poloniak egin beharrean Errusiak egin izan balu? Bitartean, horrelakoetan, Polonian izan, Errusian izan edo beste edonon, pertsona bat hamarnaka egun inkomunikaturik dutenean badaude arrazoi nahikoak bere osasun egoeragatik beldur izateko. ●

# Desagergarriak



UXUE APAOLAZA LARREA



PAULA ESTÉVEZ

**N**ora jo behar da? Desagertu egin da. Zein da telefonoa non eta nola dagoen jakiteko? Senide, lagun... banu, norantz egingo nuke? Hori etorri zitzaidan gogora Pablo González kazetariaren atxiloketaren berri izan nuenean. Eta, dirudienez, ez da nire ezjakintasunaren ondorio galdera horiei ezin erantzuna. “Beldurrezko pelikula”, definitu du egoera emazteak. Eta testu hau bidaltzen ari naizenean, hiru aste dira Pablo González Polonian atxilotu zutela. Ez du ez familia, ez bere abokatua ikusi.

Zaratatsua da gerra. Zaratatsua dira bonbak, hipersonikoak, misilen kontrako ezkutuak... eta zaratatsua dira keinuak, mezuak. Alfa arraren diplomazia esan diote. Zaratatsua da Poloniako lehen ministroa, Txekiako eta Esloveniako agintariekin batera, trenez Kievera joanez, hango gizonari, momentuko gizonari eskua estutzera. Zaratatsua da Polonia errefuxiatuak beso zabalik hartzen. Zaratatsua da armak hartzen dituzten gizonen gorazarrea.

Leherketa hotsen atzean, ordea, isiltasun handiak daude; simple ematen

zaiguna konplexu egiten dutenak. Eta hainbat kazetari dago isiltasun konplexu horri hitzak jarri nahian. Poloniak basoan izoztuta hiltzen zituen haurren isiltasunari, adibidez, Ane Irazabalek jarri zion ahotsa, eta gogorarazi du orain Poloniaren besozabaltasuna apur bat estutuz. Eta isiltasun gezurti hori loditu du Pablo Gonzálezaren atxiloketak.

Eta atxiloketa horrek ere zaratak eta isiltasunak ditu. Zaratatsua da “espioitza karguak”: Errusiaren espioia da. CNI entzuteak ere gortzen du apur bat; bai, galderak egin omen zizkioten bere hurbileko jendeari, baina Robles ministroak bere inozentzia presuntzioan sinesten du. Erregearenean bezain beste ez, dirudienez. Ez dakigu nor erotu den lehenago, CNIa edo Poloniako estatua, edo Ukrainakoa, edo hirurak batera. Baina sorgogarriena isiltasuna izan da. Ezin bere abokatua ikusi, ezin familia ikusi, beraz, ezta alderantziz ere. Isiltasuna gainezka egiten hasi da, batzuek galderak egin dituzte, eta Albarres ministroak, zerbait erantzun behar eta, esan du beste edozein herritarrek

jasoko lukeen tratua jasotzen ari dela; eta hobe dela gauzek orain arte bezala jarraitzea.

Gonzálezaren abokatua galdera asko egiten ari da kamera aurrean. Zer ezin da ikusi? Zer kontatuko du kazetariak hau bukatzen denean? Zerk irentsi du? Eta galdera makur bat, prefabrikatuta eman digutena: zer egin du egoera horretan egoteko? Eta beldurra ematen du erantzuna “ezer ez” izateak; beldurra ematen du “informatu” izateak. Eta ez da izango. Kasuak oihartzuna izateak berak ere zailduko du azalpena. Aterako den astakeriak ez du egiaztat joa izateko baldintzarik beteko: bere defentsarako aukerak ezeztatu dizkioite eta, galdezka ari den publikoa haziz joan daitekeenez, zibilizatuak beren jarrera bestela azalezinak argituko dituzten argudioak beharko dituzte.

Gerra simple esplikatu nahi zaigu, baina milaka txikitasunetan korapilatzen da. Alfa arrek letra larriz hitz egiten digute, baina txikitasun isil horiek izango gara gu, txikitasuna da gure patua. Desagergarriak gara. ●



# Menpekotasun energetikoa garai nahasietan



**MIKEL OTERO  
GABIRONDO**  
LEGE BILTZARKIDEA

**E**nergia hizpide non-nahi. Elektrizitatea, gasa, gasolioa, dena garesti, herritarren eta enpresen fakturak itotzeraino igoz, energia luxuzko produktua bihurtuz. Errusia deabru bihurturik, europarrok harekiko dugun menpekotasunean ipini digute fokua, hartzaren hatzetatik libratzeko sakrifizioak eskatuz. Baina arazo konplexu guztietan bezala, kontua sakonagoa da. Hego Euskal Herriaren kanpo energia-erikiko menpekotasuna ikaragarria izanik (%85) eta gure oinarri energetikoa fosila izanik (%80), agerikoa da berriztagarrietan oinarria duen subiranotasun energetikoa serio hartu behar dela. Arrazoiak, ugari; lehena, klima, atmosferara bidaltzen ditugun berotegi efektuzko gasen %90a fosilen erretzeak baitakar. Bigarrena, fosilen izaera finitua. Altxorra ez da betirako eta hobe dugu erregai fosilak gainditzea beraiek gu utzi aurretik. Hirugarrena, faktura. Aurtengo prezioekin, kanpoko energia ordaintzeko 10.000 milioi euro beharko ditugu, mikro eta makro ekonomia kaltetuz.

Guztia buruan, energia aurrezpena bultzatzeaz gain, berriztagarrietara jauzi egitea dagokigu. Baliabide fosilek eskaintzen diguten energia andana ordezkazina bada ere, pauso azkarrak eman beharrean gaude. Hori bai, energia be-

rriztagarria aprobetxatzeko instalazioek baliabide material mugatuak, sarri bakanak, erabiltzen dituztela ahaztu gabe. Erronka zenbat, nor, non eta nola garatu erabakitzea litzateke. Ahal den neurrian, herritarren jabegoan egongo diren eskala txikiko proiektu barreiatuen eredu sustatzea premiazkoa da, baina mugak ditu. Etxeetako eta merkataritzako kontsumoak ase ditzakegu horrela, baino garraioa eta industria mugitzeak beste eskala bat eskatzen du. Horratz arazoa, berriztagarriek lurraldearekin hartu-eman gatazkatsua baitute. Ez da berdina teilatuko plaka, ortu fotovoltaiako kooperatiboa, edo eskala handiko soro fotovoltaiako edo haize errota. Nago ni, zenbakiak eskuan, denetik beharko dugula.

Horregatik da hain garrantzitsua berriztagarrien hedapena lurralde plangintza zorrotz batekin, ingurumenaren zaintzarekin eta elikadura subiranotasunarekin uztartzea. Are gehiago, etorkizuneko energia lortzeak gure lurraldean eragina izango badu, eta izango du, errentagarritasun soziala ongi neurtzea hil ala bizikoa da, eta hori oinarritzen da planifikazio eta bultzada publikoan, herritarren parte hartze aktiboan (plangintza zein jabegoan), eta espekulatzailerak ekuaziotik kanpo uztean. ●

## Kontziliatu?



**LEIRE NARBAIZA  
ARIZMENDI**  
IRAKASLEA

**A**ndrazko estresatuta, eskolara bidean antxintxika, merienda eta kirol poltsa aldean. Hori litzateke ia guztion burura etorriko litzatekeen irudia zaintza eta kontziliazioa aitaturko bagenitu.

Kontu zabalagoa da, ostera. Umeak jagotea ez ezik, zaharrak edota behar bereziren bat dutenez arduratzea ere bada. Eta lan-hitzarmen batzuetan jasota dagoen arren, herriek, azpiegiturek eta erakunde ofizialek ez dute kontuan hartzen.

Medikuarenera joateko, adibidez. Pertsona batzuek lagunduta joan behar dute, eta eroan egin behar dira. Baina in-

guruan ez dago autoa non aparkatu, edo toki bereziren bat egonez gero, beteta dago. Beraz, laguntzaile bi behar ditu: berarekin sartuko dena kontsultan, eta automobila aparkatuko duena.

Zaintzaile bi. Batzuetan bezperan abisatuta, egun osoa libre balute moduan. Agian, probintziako beste puntaraino joan behar dira, nahiz eta etxetik gertuago dagoen zentro baten ere proba hori berori egitea dagoen. Denboraz gain, autobidearen gastua eta erregaia ordaindu behar. Autoa, ezinbestean.

Inor ez da zaintzailearen azalean jartzen, eta horrela gaitza da kontziliatzea. ●

# Argazkiak aldageletan



**AINHOA AZURMENDI ECHEGARAY**  
KIROL AHOLKULARIA ETA  
EHU-KO IRAKASLEA

**D**uela urtebete honela zioen ia 30.000 jarraitzaile dituen futboleko entrenatzaile baten txioak: “Kirol-talde baten aldagela, leku sakratua, non gertatzen den guztia bertan geratzen den... hau errespetatzen eta ulertzen ez duenak, ezingo du sekula talde bateko partaide izan”. Miresmenez betetako erantzunak jasotzen zituen bitartean, kirol arloko indarkeria sexualaren prebentzioan lan egiten dugun profesionalok larritasunez irakurri genituen hitz haiek.

Jakin badakigu aldagela ezinbestekoa dela taldea indartzeko, eta bertako elkarrizketek, eztabaidek, ospakizunek, zoriontasun eta tristurek, funtzio garrantzitsua betetzen dutela taldearen izaeran. Horrez gain, gorputz aniztasunean, norbere eta besteen gorputzaren onarpenean, eta autokontzeptu eta autoestimuan ere eragiten duela esan genezake. Alabaina, aipatutako emozio eta balore positibo guztiak kontrako norabidean islatu daitezke diskriminazio edota indarkeria egoerak gertatzen badira aldageletan. Izan ere, *bullying*-a edo abusu sexuala gertatzeko aukerak handitu egiten dira espazio hauetan, bereziki adin txikikoez ari bagara.

Kirol arloko  
indarkeria sexualaren  
prebentzioan lan  
egiten dugun  
profesionalok  
larritasunez irakurri  
genituen hitz haiek

Bestalde, paradoxikoki, norbere pribatutasunaren mugak lausotu dituen erakusleho itxurako gizarte honetan, etengabe aldagela barruan elastikoa jantzita edo erantzita dituzten kirolarien argazkiak jartzen zaizkigu begien parean. Gehienetan gizonezkoak, eta askotan, maskulinitasuna harrotasunez adierazten duten keinuez lagundu-

ta. Gainera, ez da zorrotz so egin behar konturatzeko apenas ikusten direla irudi horietan lodiak edo normatiboak ez diren gorputzak. Kirolari helduek, profesional eta eredu-garriek, kontziente izan beharko lukete horrelako jokabideak azaltzen dituztenean haur eta gazteak begira dituztela, eta gehienek portaera horiek onetsi eta kopiatu egingo dituztela kontziente izan gabe haientzat ekar dezaketen arriskua handia dela irudiarren kontrola erabat galtzen delako, eta abusuak pairatzeko probabilitatea handitzen delako.

Aldagela espazio intimoa da, eta ahal den heinean adingabekoen autonomia sustatzeko, harremanak indartzeko, eta gorputz eta identitateen aniztasuna onartzeko tresna izatea aldarrikatzen dut, beti ere, espazio seguru eta osasuntsua bada. Eta hori hala izan dadin pertsona helduok badugu erantzukizuna eta zeregina. Batetik, heziketa bidez eta neurri zehatzak ezarriz helduak aldagelan egon behar izan gabe bortizkeria gertatu ez dadin ziurtatzea; eta, bestetik, aldagela barruko argazkiak argitaratzearen zentzuaz kritikoki hausnartu eta erabaki arduratsuak hartzea. ●



#korrika  
#KorrikaHamaikan  
24 orduz etengabean

Aurkitu, ikusi, partekatu  
DESKARGATU zure KILOMETROA  
[www.korrika22.hamaika.eus](http://www.korrika22.hamaika.eus)



# Patriarkatua eta kapitala, aliantza kriminala



EMAKUMEOK  
GERRAREN AURKA

**G**erra batzuk, batzuk bakarrik, telebistako ikuskizunaren parte bezala sartzen dira gure etxeetan. Ukrainatik iristen zaizkigun gerra eta suntsipen irudien izugarrikeriak eta hondamenditik ihesi doazen milaka eta milaka pertsonen exodoak gure inguruko jende askoren kontzientziak astindu dituzte. “Zuzeneko gerrak” hunkitu eta izutu egiten gaitu; baina, Emakumeok Gerraren Aurkak aspalditik salatu dugunez, hondamendi hori eguneroko ogia da. Salbuespen gutxi batzuetan izan ezik izugarrikeriara ohitzen ari garela ematen du, eta belakien antzera xurgatzen goaz bai gerraren diskurtso ofizial manipulazaila, bai armak eta militarizazioa gaitz onargarri bezala.

Ukrainak min ematen digun bezala, min ematen digute munduan piztuta dauden beste 65 gerrek ere: Irak, Libia, Palestina, Sahara, Afganistan, Siria, Yemen, Kurdistan....Munduaren aginte inperialista, baliabide naturalak edo energia fosilak helburu duten gerrak dira. Arma fabrikatzaile aseezinen mesederako gerrak, heriotzaren merkatu makabroan etekina ateratzen dutenak.

Guk, emakume antimilitarista eta feministok, ez dugu gerrarik nahi. Kapitalismo basatia da gerren onuradun bakarra, armen negozio odoltsua eta baliabideen espoliazioa helburu dituena. Aitzitik, pertsona gehienentzat heriotza besterik ez dakarte, sufrimendua, migrazio masiboa, miseria eta desberdintasunen areagotzea. Aspaldi ikasi dugu gerra dela indarkeria patriarkalaren muturreko adierazpena. Kapitalismoak eta patriarkatuak gerrak behar dituztela irauteko eta zapaltzen jarraitzeko. Gerra guztiak amaitu behar dira.

Gaiari sakonean  
heltzeko ordua  
da: gerra elikatzen  
dugu ekoizpen  
militarrarekin, eta  
gerra horiek erditzen  
duten ordena  
ekonomikoaren  
onuradun gara

Horregatik, beste toki batzuetako emakumeekin batera, Gerraren aurkako Erresistentzia Feministaren Manifestua sinatu dugu, eta arbuatzen ditugu Ukraina babesteko aitzakiarekin giro gerrazalean sakontzen duten jarrerak, gatazkari armak gehitzeko eta gerrako aurrekontuak handitzeko erabakiak. Ez gure izenean.

Kezka sortzen digute gizarte esparru zabaletan Euskal Herriko industria militarrekiko dagoen onarpenak eta normalizazioak. Eusko Jaurlaritzak, unibertsitateek, banketxeek eta abarrek lagundutako heriotzaren industriak eragotzi egiten du gure ekoizpen militarren erantzukizuna gure gain hartzea. Begiak ixten ditugu hiru elementuren

arteko harremanaren aurrean: gerrak, beste herrialde batzuen arpilatzea eta gizarte aberastuetako ongizate materiala –tartean, euskal gizartearena–.

Emakumeok gerraren aurka taldeak uste du gaiari sakonean heltzeko ordua dela: gerra elikatzen dugu ekoizpen militarrekin, eta gerra horiek erditzen duten ordena ekonomikoaren onuradun gara, unibertsala ezin izan daitekeen ongizate material batez gozatuz. Desberdintasun horrek gerrak berak baino gehiago hiltzen du.

Militarismoan sakontzeak dinamika gaizto eta arriskutsuan murgiltzen gaitu. Armadak eta armen pilaketak herrien segurtasuna bermatzen dutela sinestarazi nahi digute, baina feministok ez dugu bake eta segurtasun horretan sinesten. Ukrainan, Euskal Herrian, Ekialde Ertainean, Afrikan eta munduko edozein bazterretan, herritar guztien ongizatea bermatzen duten gizarte erduetan baizik ezin da oinarritu segurtasuna. Segurtasunerako politika feministak zaintzan eta pertsona guztientzako ekitatea eta bizitza duina lortzeko gai diren politiketan oinarritzen dira.

Elkarriketaren eta Indarkeriarik Ezaren kulturaren alde lan egin behar dugu. Gatazkak indarkeriarik gabe konpontzeko bidean aurrera egin behar dugu. Estatuaren desmilitarizazioaren bidean urrats eraginkorrak eskatu behar ditugu. Industria militarra eraldatu. Heriotzaren merkatariari eta beren konplize politiko, ekonomiko eta intelektualei mozorroa kendu. Bizitza erdigunean jarri. Mundua armagabetu eta bizitza zaindu. Baita, hemen, Euskal Herrian ere. ●

## 2017-2022: FRANTZIAKO PRESIDENTEAREN BALANTZEA

# Aberatsenei egin opariekin oroituko dugu Macron

2017an “aldaketa” hitz emanez boterera iritsitako Emmanuel Macron bigarren agintaldi batentzat aurkezten da. Azken bost urteei begiratzerakoan ez da aitzineko gobernuekilako hausturarik ageri; alderantziz, norabidea eta bidea are markatuagoak izan ditu: liberala da, oso liberala, eta zergen gutxitzearekin batera, zerbitzu publikoen ahultzea eta lan merkatuan flexibilitatea bideratzea izan dira Frantziako presidentek harturiko orientazio politiko nagusiak.

### JENOFA BERHOKOIRIGOIN

**O**rdura arteko sistema politikoarekiko “haustura” ekarri behar zuen Emmanuel Macronek. Kanpainan zehar behin eta berriz errepikaturiko promesa zuen hori eta alderdi klasikoetatik kanpo, La République en Marche hautagaitza sorturik, 39 urteko “gaztetxoari” konfiantza egin zion bozkatzailen %24ak –%66ak bigarren itzulian, eskuin muturreko Marine Le Pen gailenduz-. Agintaldia bukatzera doala, ondorioztatu dezakegu horrelakorik ez dela gertatu. 2017-2022 agintaldian Macronek ez du bide berririk ireki, bere aitzinekoek abiatutakoan segitu du, gainera, usu erritmoa zein tonua areagotuz.

#### “ABERATSEN PRESIDENTEA”

Finantza publikoen arloko Solidaires sindikatuak ohitura du kargualdi bukarran Frantziako presidentearen politika fiskalaren balorapena egiteko. “Zerga ez da soilik neurri teknikoa. Ez da neutroa, bere izaera eta kalkulatzeko modua direla eta, gizartean eragina dauka, gizarte-desberdintasunak murriztuz edo, alderantziz, larrituz”. Zergen eta kotiza-

zioen ttipitzen aritu da Macron: urtero 60.000 milioi euro gutxiago, “enpresen lehiakortasuna” eta “herritarren errotasuna” bermatzearen izenean. Zergen gutiatzeak zor publikoaren emendia, eta hortik maiz zerbitzu publikoen gutxitzea dakar. Ekonomisten arteko eztabaidagaia da zerga-politikarena, liberalen eta interbentzionisten arteko ezberdintasun nagusia. Macron liberala da eta azken bost urteetako neurri fiskalak horren isla ditugu.

ISF aberastasunaren gaineko zerga kentzea izan zen Macronek harturiko lehen neurrietarikoak, nolazpait ofizializatuz bazeukan “aberatsen presidentea”-ren itxura. Herritarren kexua piztu zuen erabakiak. V. Errepublikako lehen presidente ezkertiar François Mitterrandek 1982an ezarritako neurria esanguratsua da eta eskuineko presidente oro saiatu izan da murrizten. Frantziako 350.000 aberatsenek zuten ISF pagatzen 2017an, 5.100 milioi euroko diru-sarrerara ondorioztatuz. Ondoko urtean 3.320 milioi euro gutxiago sartu ziren, bakarrik aberatsenen ondasun higiezinak direlako orain kontuan hartzen. “Kora-

pilatsua eta eraginkortasunik gabeko 35 urteko totem ideologikoa erori arazi dugu”, zioen Ekonomia ministroak erreforma gauzatzerakoan. Enpresei bideratu zergak ere ttipitu ditu: 30.000 milioi euro gutxiago 2018-2021 tartean. Tendentzia hori ez da berria, baina areagotu da: enpresek pagaturiko zergen heina %50 zen 1985ean, %33,33 1993-2017 urteetan eta %25ra pasa da Macronekin.

Interneteko multinazional handienak zergapetzeko erabaki esanguratsua hartu zuen hala ere 2019an, 375 milioi euro bilduz 2020an: 750 milioi euroz goragoko negozioa daukatenei Frantzian deklaraturikoaren gaineko %3ko zerga bideratu die. Hasiera ona izan arren, Attac gisako egiturek diote zerga ihesa ez duela oztopatzen. Are gehiago, zerga ihesaren kontrako neurri bakarrenetarikoa kendu zuen Macronek: Exit Tax edo negozioa Frantzian deklaratzeari uzten dutenen irabazien gaineko zerga. “Inposak murrizten ditugula, guztia sinplifikatzen dugula, lan merkatuan flexibilitate gehiago bideratzen dugula eta Frantziako ekonomiaren eraldaketa bultzatzen dugula, horra inbestitzaile kanpotarrei



#### BERRIRO ESKUINA

botoen %66 lorturik, Marine Le Pen garaitu zuen Macronek 2017an. Alderdi Sozialistako François Hollandei hartu zion lekukoa.

JULIEN MUGUET

erakutsi nahi dieguna”, zioen Macronek zerga hori kentzerako orduan. Flax Tag edo kapitalaren gaineko %30eko zerga finkoa ere dugu aberatsei eginiko oparrien artean.

Hori guztia “isuriaren teoriaren” arabera justifikatzen du gobernuak: aberatsenei zergak murrizteak ondorio baikorrak ditu, poltsikoan atxikiriko diru horrekin kontsumiturikoak eragin gehiago daukalako ekonomian eta, beraz, jendartean. Baina teoria ez da baieztatu, gobernuak berak aitortu du hori.

#### ZERBITZU PUBLIKOAK MURRIZTU, DEFIZITA TTIPITZEKO GISAN

Zerbitzu publikoetan ere izan du eragina Macronen agintaldiak. Aitzineko gobernuak hasitako bide beretik segitu du: RGPP edo Politika Publikoen Berrikuspen Orokorra hasi zuen Nicolas Sarkozy 2007an eta François Hollandek segitu zuen MAP Ekintza Publikoaren Modernizazioarekin. Bere aldirian, 2017an batu zituen Macronek CAP 2022 Ekintza Publikorako Batzordean eko-

## ISF aberastasunaren gaineko zerga kentzea izan zen Macronek harturiko lehen neurrietarikoa

nomialari liberalak, sektore pribatuko koadroak, inbertsio-funtzen zuzendarik eta goi-funtzionarioak. Azpi-kontratatzearen eta pribatizazioaren bidea garatu izan dute, beti ere ekonomiak eginez zulo publikoa ttipitzeko. Hainbat pribatizazio burutu dituzte (Française des Jeux, Pariseko aireportua, trenbideen zati bat, eta abar), baita osasunean, segurtasunean zein bestelako zerbitzu publikoetan azpi-kontratazioak biderkatu ere.

Osasunaren sektorea izan da seguruenik kalitatezko zerbitzu publiko berratzearen alde gehien mobilizaturiko-

koa. COVID-19 izurritea agertu aitzin zebiltzan greban ospitale, zahar etxe, zein larrialdietan. Bi zenbaki dimentsioaz ohartarazteko: 2019ko abuztuan 200 urgentzietan ziren greban eta 2020ko urtarrilean, haserre eta etsiturik, ospitaleetako 1.000 zerbitzu-buruk kargua uzten zutela jakinarazi zuten gutun kolektibo bat izenpetuz.

17.900 ohe kendu ditu ospitaleetatik Macronen gobernuak –horietarik 5.700 2020an, COVID-19 izurritearen hastapenean-. Koronabirusari aurre egiten zebiltzan osasun arloko langileen keua baretzeko Segur Erreforma bozkatu zuten. Tamalez, ez ditu lan baldintzak hobetu eta lan karga handia eta langile eskasa duen sektoreak kinka larrian segitzen du. Hilabete saria 183 euroz emendatzea izan zen neurri nagusienerarikoa, baina lan baldintzek berdin segitzen dutenez, “trufa” eta “mespretxua” sentitzen dute anitzek.

34 osasun-etxe publiko dira desagertu azken bost urteetan. Landa eremuak du azkar pairatzen zerbitzu publikoan



MAGALI COHEN

ixtea, osasun arloan bezala bestelako sektoreetan ere –posta bulegoak, garraioak, auzitegiak, eskolak, kultur guneak eta beste-. Testuinguru horretan ditu opari fiskalak bideratu aberatsenei. Hori horrela, ez da kasualitatea 2018ko udazkeneko Jaka Horien loraldia.

### PAREAN, JAKA HORIAK

Prekarioen kexua eta asperdura hausputu zituen Macronen jarrerak, aspaldian ikusi gabeko herritar mugimendu bat abiaraziz. Iraganeko mobilizazioetatik ezberdin, gobernuak bideratu erantzunek ez zuten balio izan Jaka Horien protestak baretzeko. Mugimendu deszentralizatua, sindikatu eta alderdiez autonomoa, antolaketa eta tresna berriak garatu zituzten Frantziako Estatuko biribilguneetan batutakoek. Hastapenean karbonoaren gaineko zergaren kontrako mugimendua zena laster bihurtu zen sistema politikoa- ren kontrakoa. Macronek behin eta berriz hitz emandako “aldaketa” oinarritik bideratzea zuten amets. *Macron démission!* mezua omnipresente zen, 2019ko konfinamenduak isilarazi arte.

### ARTETAN, HERRITARREN ASKATASUNEN GAINETIK PASAZ

Irudi ikusgarriak ageri ziren Jaka Horien manifestazioetan: bi aldeetatik indarkeria handia. 3.000 kondenaturik, 1.000 presondegiratuak. Izugarritzat jo zuen Amnesty Internationalek poliziaren indarkeria: “Manifestazioen kudeaketa eredu horrek Jaka Horien mugimendua gainditzen du, Maiatzaren 1eko protestetan eta suhiltzaileen manifestazioetan ere ikusi izan dugu. Gu geu gaseatuta izan gara klimaren aldeko martxan. Berehalako eta neurri handiko errepresioa bideratzean datza ordena mantentzearena gaur egun Frantzian, eta berdin dio oinarritzko askatasunak zangopilaturik badira”. Orotara, 2.500 Jaka Hori zauritu zituen poliziak.

Bortizkeria hau ez zuen deitoratu Macronek; are gehiago, polizien jarduerak –tartean, indarkeriak– babesteko hainbat neurri hartu zituen. *Loi Anti-casseurs* edo Hausleen Aurkako Legea pasa zuen 2019an, manifestazio eskubidea zangopilatuz –manifestazioak debekatzeko aukera prefetarentzat; aurpegia

estalarik daukanarentzat kartzela eta isuna; pertsonak miatzeko eskubidearen zabalpena; eta abar.–. Iaz bozkaturiko Segurtasun Globalaren Legea ere dugu gogoangarria, ondokoak dakartzalako: poliziaren gehiegikerien irudiak “fede txarrez” zabaltzeko debekua; manifestazioak kubritzeko prentsa karta ukaiterean obligazioa; eta lekuak husteko manua emanik bertan gelditzea delitu bilakatzea kazetariarentzat.

“Mehatxu islamistari” aurre egiteko jarritako larrialdi-egoerak tarte baterako ondorioztatu hainbat askatasun eta eskubide murrizketa legedia arruntean sartu dira azken bost urteetan. Funtsan, giza eskubideen alde dabilzanek alarma gorria piztu izan dute behin baino gehiagotan.

### LANGILE ESKUBIDEAK MURRIZTUZ

Lehendakaritza hartu eta hilabete batzuetara bideratu zuen Lan Kodearen erreforma, ordenantza bidez. “Enpresaburuek kontratatuzeko daukaten beldur razional ala arrazionalak gainditzeko” as-



**MACRON DÉMISSION**  
2018ko udazkenean loraturiko Jaka Horien mugimenduak gogorki kritikatu izan du Macronen politika.

SIMON GUILLEMIN

moz, 117 neurri biltzen ditu erreformak. “Lan-kontratuaren arloan atzerapausoa dakar eta Lan Kodearen helburua zalan-tzan jartzen da”, SAF Frantziako Abokatu-tuen Sindikatuen arabera. Kanporatzeak errazteko aldaketak dakartza –lan auzitegira jotzeko tartea laburturik; kalte-ordainak mugatuak; eta abar–, baita langileriaren eskubideen ahultzea ere –sektore-hitzarmenen gainetik jarri dira enpresen baitakoak; ordura arte ez bezala, behin eta berriz berriro daitezke kontratu mugatuak, langileria ezjakintasunean eta prekaritatean atxikiz; eta abar–.

“Eskuzabalegia” zela erranez, langabeziaren esparrua ere erreformatu du Macronen gobernuak. Langabezia kalkulatzeko modua aldaturik, batez beste %17 gutxiago jasotzen du langabetuak –horietariko 400.000k %40 gutxiago, Unedic egitura publikoaren arabera–. Nolaz? Sariaren zenbatekoak kontuan hartzen dituelako lan egindako eta lanik gabe egondako epeak. Horren eraginez, egunkako sari erreferentziala apaltzen da, lanik gabeko egunak ere kontabilizatzen baitira. Langabezia jasotzeko

Polizien jarduerak  
–tartean, indarkeria–  
babesteko hainbat  
neurri hartu ditu  
Macronek

baldintzak ere gogortu dira –langabezia saria eskuratu ahal izateko lau hilabete lan egin behar ziren azken 28 hilabeteetan, baina erreformaz geroztik, 24 hilabeteetan sei hilabetekoa behar du lan epeak–.

Behin baino gehiagotan atera dira herritarrak kalera azken bost urteetan. Erretretaren erreforma salbuespen, sindikatuek ez dute lortu mobilizazio jendetsu eta iraunkorrik eta zer pentsatua ematen du ikusirik langileen eskubideak eta estatu soziala bortizki hunkiak izan direla.

## **PAREKIDETASUNA, KLIMA LARRIALDIA... BIGARREN MAILAN**

Ez du aldaketaren haizeak irauli parekidetasunaren arloa, nahiz eta Macronek berak zehaztu agintaldiko “auzi nagusia” izango zuela. Me too mugimenduak akuilatzen ahalko zuen gobernu, baina ez dio kasurik egin, eta nahiago izan ditu Barne ministro aukeratu bortxaketa bat leporatua zaion Gerard Darmanin eta Justizia ministro, berriz, adierazpen antifeminista bortitzak egiten aritutako Eric Dupont-Moretti. Lehentasunetan zuen klima larrialdiaren arloan ere gauza bera. Alta, nazioarteko adituen eta herritarren proposamenei lotuz bideratu zezakeen aldaketa. Oroit gara, *Affaire du siècle* edo “XXI. mendeko afera” ekimenaren baitan, klima larrialdiari aurre egiteko Frantziaren inplikazio eskasa salatzekeo petizioa izenpetu zutela bi milioi herritarrek. Arrazoi beragatik, lau talde ekologistek salaketa jarri zuten estatuaren kontra eta justiziak arrazoi eman zien iazko urrian. ●

# Ukrainara begira ere bozkatuko da

Frantziako hauteskunde presidentzialen lehen itzulia ospatuko da apirilaren 10ean. Ukrainaren inbasioak eragin zuzena izango du bozetan. Inkestak eskuan, egungo presidente Emmanuel Macron ageri da indartsuen. Marine Le Pen eta Eric Zemmour ultraeskuindarrek bigarren bueltara heltzeko aukerak dituzte. Ezkerrean aukerak dituen bakarra Jean Luc Mélenchon litzateke. Hauen atzetik, baina oraindik aukerekin, Valérie Pécresse kontserbadorea.



**A**pirilaren 10ean ospatuko da Frantziako hauteskunde presidentzialen lehen itzulia. Aurkezteko behar diren babesak bilduta hamabi hautagaik ekingo diote Eliseorako lasterketari. Frantzian eta Europan azterlanean diharduten Ifop eta Electrograph etxeek berriki argitaraturiko inkestak arabera, bigarren bueltara igarotzeko aukera gehien dituen egungo presidente Emmanuel Macron da, %28ko bozka intentzioarekin. Atzetik ditu Batasun Nazionalako Marine Le Pen %18,5arekin, ostean, ia berdinduta, %12-%14 bitarte Eric Zemmour ultraeskuindarra eta Jean-Luc Mélenchon ezkertiarra. Hautagai bateratu bat aurkeztearen saiakerak porrot egin ostean, bera da ezkerretik aukerak dituen bakarra. Aipatzekoa da hainbat pertsona publikok salatu duela ezkerreko hautagaiei medio nagusietatik egin zaien jarraipen mediatiko eskasa. Zemmour eta Mélenchon atzetik, aukera gutxiagorekin, LR Errepublikanoen hautagai Valérie Pécresse legoke, botoen %10 ingururekin.

Urtebete bada 2021eko udaberrian

Historian lehen aldiz, bigarren itzulira igarotzeko aukera duten bi hautagai ultraeskuindar izango dira Frantzian

ospatu ziren hauteskunde erregionalen aitzakian Lilleko paradoxaz hitz egin genuela horri hauetan. Frantzian zehrikusi gutxi izaten dute hauteskunde erregionalek presidentzialekin, baina haietan jazotakoak ere eragin lezake orain. Batasun Nazionalaren estrategia berriarekin, Marine Le Penek errepublikarrak gainditzeko esperantza zuen masa sozial indartsua duen Frantzia Garaia edota Proventza-Alpeak-Kosta Urdina eskualdeetan. Bietan gailendu

zitzea eskuin klasikoa (LR Errepublikanoen babesa zuten hautagaiek).

Presidentzialen atarian, ahulago zirudiena indartu egin zen. Nolabait, Macron eta Le Pen gain, Errepublikanoen hautagai bat Eliseorako lasterketara indar haundiagorekin aurkezteko baldintzak sortu ziren.

## ERREPUBLIKANOEN PRIMARIOETAN PÉCRESSE GARAILE

Frantzia Garaiko eskualdean Batasun Nazionalari gailendu ostean, kinie-la guztien arabera Xavier Bertrandek izan behar zuen errepublikarren hautagaia. Alderdiak ospaturiko primarioetan, baina, Pécresse atera zen garaile. *El Pais*-eko Frantziako korrespontsal Marc Bassetsek "Valérie Pécresse edota burgesiaren xarma diskretua" artikulua idatzi zuen bere garaipenaren berri emateko. Izan ere, Pécresse emakume bakarra izateaz gain, aurkeztu diren hautagaien artean aberatsena ere bada. Parisko elitearen parte, liberala ekonomikoan eta kontserbadorea sozialean. Bi heren Merkel eta heren bat Thatcher





dela aitortu zuen *Le Point* aldizkariari eskainitako elkarrizketa batean. Sexu berekoen arteko ezkontzaren aurka sortutako La manif pour tous mugimendua hainbatetan babestu izan du. Besteengandik urruti oraingo, kanpaina ausarta egin beharko du bigarren itzulira igaro nahi badu.

### **ZEMMOUREN HAUTAGAITZA EDO ULTRAESKUINA NOLA HAUSPOTU**

Pécressek primarioak irabazi baino zerbait lehenago entzun ziren errekonkista oihuak Frantziako irrati telebista kateetan. Hauen atzean zen Zemmour kazetari polemikoa. Bere azken lan literario arrakastatsuen *La France n'a pas dit son dernier mot* ("Frantziak ez du bere azken hitza esan") izenburuari so, zutabe zein platoetan errepikatu du oraindik asko dutela esateko frantziarrek, herrialdea moralki eta politikoki errekonkistatu beharra dagoela. Feminismoa eta immigrazioaren etsaia,

Moskutik datozen  
mezuek eta  
gerraren mamuak  
hautesleak nabarmen  
baldintzatu  
ditzakete aukera  
bat edo bestea  
bozkatzerakoan

2006-2014 bitartean argitaratutako *Le premier sexe* ("Lehen sexua) edo *Le suicide français* ("Frantziaren suizidioa") saiakerak estandarte bilakatu dira frantziar gizarteko sektore erreakzionarionetan.

Testuetatik hitzetara, azken urteetan adierazpen misogino eta arrazisten artean egin du hautagai presidentzial bilakatu aurretiko bidea. Komunikabide korporazio handiek interesatuki eskaini dioten bozgorailuez idatzi izan du Jenofa Berhokoirigoinek ARGIAren 2760. alean. Ugo Palheta soziologoak *Viento Sur* agerkarian "Eric Zemmouren igoera disdiratsua" izenburu duen artikuluan maisuki azaldu du Stathis Kouvelakis filosofoaren laguntzarekin nola eta zergatik burutu duten maniobra mediatiko hau. Pixkanaka mass media kontserbadorearen pilare nola bilakatu den.

Beste hautagaien erdia eginez, plautoetatik aktualitatea denbora luzez baldintzatzeko ahalmena izan du. Ofizialki bere hautagaitza abenduaren 5ean aurkeztu zuen Parisen 12.000 jarraitzailearen aurrean. Zin egin zuen egoera irregularrean dauden etorkin guztiak herrialdetik botako dituela presidenten izendatzen badute. Zergen jaitziera

ere iragarri zuen. Kanpainan erabiliko dituen bi aldarri nagusiak lirateke aipatu biak. Historian lehen aldiz bigarren itzulira igarotzeko aukera duten bi hautagai ultraeskuindarrak izango dira Frantzian. Le Penentzat mehatxu argia da, are gehiago azken honen iloba Marion Maréchal Le Penek bere izabaren hautagaitza utzi eta Zemmouren "errekostara" batu dela publiko egin duenean.

## EZKERRA EZTABAIDA PUBLIKOTIK AT

Txanponaren beste aldean, beraz, ezker eta ezker muturreko zenbait hautagaik medioetatik jaso duten trataera. Hautagai ultraeskuindarra hauspotu dutenek ez dute ezkerrean egituratzen joan diren aukeren gainean txintik esan. Agian kasu adierazgarriena Anasse Kazib militante troskistarena izan da. 2018ko trenbide greban ezagun egin zen aktibista, bere programa eta hautagaitza Frantziako hainbat txokotara eramatea lortu du, gizarte eragile eta mugimendu desberdinen atxikipena eskuratuz.

Tamalez, medio konbentzionaletatik ez da Kazib lortzen ari zenaren inguruko jarraipen berezirik egin. Azkenean, ez du lortu aurkezteko behar den babes maila. Kaziben Iraultza Iraunkorra mugimenduaren amaiera ekitaldira Adèle Haenel aktore ezagunak bidalitako gutunean gogor salatu zuen medioen joera interesatua: "Frantziak gaur aurpegi desberdina luke, iraultza iraunkorren proposamenak eta Anassen inteligentzia sentiberak ultraeskuindarren hitzek jaso duten arreta komunikatibo berbera jaso izan balute". Eta Kasibena bezala, egin dira beste kasu batzuk ere.

Melenchonez gain, beraz, ezkerrean filtroa pasatzea lortu dutenak alderdi tradizionalak babestutako hautagaia



Hautagai ultraeskuindarrak hauspotu dituztenek ez dute ezkerrean egituratzen joan diren aukera desberdinen gainean txintik esan. Anasse Kaziben inguruko jarraipen berezirik ez da egin. Azkenean ez ditu aurkezteko behar diren auzapezen 500 izenpedurak bildu.

ARGAZKIA: LUCILE GOURDON/SIPA

izan dira. Yannick Jadotek hautagaitza ekologista, Frantziako Alderdi Komunistak babesten duen Fabian Roussel edota Parisko alkate Ane Hidalgo sozialistaren zerrenda. Azken hauek guztiak bigarren bueltara igarotzeko aukerarik gabe. Aurkeztea lortu duten eta bidean geratu diren hautagaien gaineko sailkapen interesgarria kaleratu du France24 kateak.

## ERRUSIAREN INBASIOAREN ERAGINA

Putinek Ukraina inbaditu ostean hankaz gora jarri du guztia. Inbasioa ekonomiaren eta geopolitikaren aspektu

guztietan eragina izaten ari da. Bistan da gertakari honek hauteskundeak zizpriztinduko dituela. Moskutik datozen mezuek eta gerraren mamuak hautesleak nabarmen baldintzatu ditzakete aukera bat edo bestea bozkatzerakoan. Putinekin izandako harreman onaren aldarri egin duen Le Pen, adibidez, guda egoerak nahiko kolokan uzten du kanpainarako egun gutxi falta diren honetan. Alabaina, Putinen aurka eta Europar Batasunaren alde eginiko saiakerek egungo presidente Macron are gehiago indartuko dutela ez du jada inork dudan jartzen. Gauzak horrela, Macron eta zein lehiatuko dira apirilaren 10ean? ●

korrika.eus

22. korrika **BILBON**

naiz: berria  
hamaika: eitb  
ARGIA: Deia

korrika.eus

Bilbao

HITZETAN Amurriotik Donostiara  
2022ko martxoaren 31tik apirilaren 10era

**APIRIK 6, ASTEAZKENA**

1 ELORRIETA	19:28	10 ERREKALDE	21:50
2 DEUSTU	19:47	11 ZAZPI KALEAK	22:13
3 URIBARRI	20:00	12 UDALETXEA	22:26
4 TXURDINAGA	20:20	13 PUPPY	22:35
5 OTXARKOAGA	20:26	14 PLAZA BIRIBILA	22:53
6 SANTUTXU	20:40	15 SAN MAMES	23:19
7 ABUSU	21:00	16 BASURTUKO OSPITALEA	23:31
8 MIRIBILLA	21:30	17 ZORROTZA	23:48
9 IRALA	21:36		



%100  
kotoi  
organikoa

19,5€


+ 4€  
bidalketa  
gastuak

Artikulu hauek erosita  
ekarpen ekonomikoa  
gingo diozu Bilboko Mbolo  
Moye Doole elkarteari.  
Atera aldarria kalera  
euskaraz eta wolofez!

SANTURTZI 1967

# BUTANO LEHERTU ZENEKOA

Santurtziko Butano enpresako biltegian leherketa izugarri batek inguruko etxe ugari kaltetu eta milaka lagun herritik ihes egitera eraman zituen 1967ko urtarrilaren 17an. Istripu haren ondorio sozial eta emozionalak ez dira desagertu, gaur egun arte marraztu daitekeen sekuentzia kronologikoan ikusten denez.

 ANDER LEON NANCLARES

**1** 967ko urtarrilaren 17an hotz handia egiten zuen Santurtzin. Astearte hartan, negua izaki, arratsaldeko 18:00ak inguruan ilundu zuen eta herritar gehienak goiz erretiratu ziren etxera, ohi bezala. Telebista frankistako kate bakarrean *Belfegor, el fantasma del Louvre* (Belfegor, Louvreko mamua) telesail frantsesaren laugarren eta azken kapitulua ematen ari ziren bitartean, Portu Frangoaren aldetik zetorren eztanda handia entzun zen herri osoan. 20:45ak ziren eta ordu arraroa bazen ere, hasiera batean herrigunetik gertu eraikitzen ari ziren zentral termikoaren obretako leherketa kontrolatua izango zela pentsatu zuten ingurukoek. Baina laster antzemango zuten ezohiko zerbait gertatzen ari zela, su bola ikaragarria ikusita.

**22:30**

#### **SUZKO BOLA ERRALDOIA**

Zierbenarako bidean, Serantes mendien magalak itsasoarekin bat egiten duen tokian zeuden Butano S.A. enpresaren biltegietatik zetorren leherketa. Arriskua ikaragarria zen eta herria berehala hustea agindu zuten. Hala, 22:30ak aldera bigarren leherketa gertatu zenean inguruko etxe gehienak hutsik zeuden, zorionez. Leherketa hura aurrenekoa baino askoz bortitzagoa izan zen: 259 etxebizitza suntsitu zituen eta Abraren beste aldeko Algorta eta Areetako erai-kin askoren kristalak ere hautsi zituen. Auzune horietatik iluntasuna hautsi zuten suzko zutabe handien argazki ikusgarriak atera zituzten bizilagunek.

**23:00**

#### **HERRITARREN IHESALDIA**

Santurtzi argindarrrik eta telefono konexiorik gabe geratu zen, eta biztanleen artean izua zabaldu zen. Apenas ikusten zen ezer, eta ez zegoen informazio zehatza lortzeko biderik. Ihesaldia orokorra izan zen: oinez, trenez, autoz... Portugaletera, Sestaora, Bilbora, Serantes mendira... 20.000 pertsona abiatu ziren leku seguru baten bila. Lehorretik ez ezik, itsasoz ere irten ziren ahal izan zutenek, eta portuan atrakatuta zeuden merkantzi-ontziak ere ziztu bizian itsasoratu ziren. Herritarren oroimenean geratu den irudi nagusia ihesarena da: errepidea beteta, jendea mantaz estalita, hotza, iluntasuna,

eta noizean behin isiltasuna hautsi eta zera gorritzen zela beste leherketa baten ondorioz, gerra balitz bezala.

**02:30**

#### **SUHILTZAILEAK SANTANDERTIK**

Gertatutakoa larria izan bazen ere, ezinezkoa da neurtzea gerta izan zitekeena. Sua piztu zen tokiaren ondoko CAMPSaren biltegietan 80.000 tona erregai zeuden eta suhiltzaileen ardura nagusia depositu horiek babestea izan zen. Portuko suhiltzaileak izan ziren iristen aurrenekoak, baina Bilbokoak ere laster ailegatu ziren, 02:30ean Santanderrekoak, eta 04:30ean Donostiatik joandakoak. Gau hura bizi izan zuten suhiltzaile guztien testigantzak oso antzekoak dira: ez zekiten zehazki nora zihoazen, baina suzko zutabeak urrutitik ikusten zituzten eta garbi zuten hondamendi handi baten aurrean zeudela. Halako batean, leherketa txikiago batek bultzatuta burdin batek biltegi nagusiaren horman jo zuen. Zorionez, azala mailatzea baino ez zuen lortu. Zulo txikiren bat eginez gero, auskalo leherketa nolakoa izango ote zen.

**07:30**

#### **PAISAIA BELDURGARRIA AGERIAN**

Egunsentirako egoerak kontrolatuta zirudien, baina paisaia beldurgarria zen. Hildako bakarra egon zen hala ere: Vicente Gajate Marcos, Santurtziko udaltzaingoaren burua; antza denez, egoeraren larritasunaren aurrean bihotza gelditu zitzaion. Suhiltzaile batek erredura larriak jasan zituen eta 778 pertsona arin zauritu ziren, gehienak ihesaldian izandako istripu txikietan. Eta horrez gain, 800 pertsona etxe gabe geratu zen.

**Urtarrilak 18**

#### **LANERA EZ**

Leherketen ondorengo egunean ez zen inor lanera joan eta Ezkerraldeko taile-rrak langile santurtziarrik gabe moldatu behar izan ziren. Udaletxe aurrean jende asko bildu zen, denak informazio eske, senide edo lagun berri jakin nahian. José Hernández Soto alkateak lasaitasunerako deia egiten zuen, eta behin eta berriz nabarmendu zuen ez zela hildakorik ez zauritu larririk egon; baina bere hitzek herritarrek lasaitu beharrean, haien haserrea areagotu zuten.

Santurtziko gas leherketa hain izan zen handia, ezen Nerbioi ibaia itsasoratzen den Abraren bestaldean, Getxoko Areeta eta Algortan, etxebizitza askoren leihoetako kristala hautsi zuela. Toki hartatik suzko "onddoari" ateratako argazkiak postal gisa erabili ziren geroago.



Ezkerrean, Butano S.A enpresak trenbidean zituen gas ontziak lehertuta eta inguruko eraikinak txikituta; CAMPSAko biltegi nagusia ondoan zegoen, eta kanpoaldetik kaltetu zuen eztrandak. Eskuinean, herritarrek Santurtzin egindako manifestazio jendetsuetako bat, azpiegitura hori herri ondoan izateak sortzen zuen arriskuaz jabetuta, "gas fabrika gure etxeetatik urrunago" zioten pankartak zeramatzaten. SANTURTZI.BIZ

## Urtarrilak 22a


### MANIFESTAZIOA ETA PROTESTAK

Haserre hori adierazteko manifestazioa antolatzen hasi ziren Santurtziko hainbat auzotako bizilagunen elkarte. Urtarrilaren 22an egin zuten protesta eta eskaera nagusia Butano biltegiak ixtea izan zen, edo gutxienez instalazioak etxebizitzetatik urruntzea. Manifestazioa udaletxearen aurrean bukatzen ari zela, Hernández alkatea balkoira atera zen berriz ere lasaitasuna eskatuz eta legeak bete behar zirela gogoraraziz. Manifestarien erantzuna, oraingoan, harriak izan ziren. Ingurua babesten ari zen Guardia Zibila oldartu eta istiluak herri osoan barrena zabaldu ziren. Jende ugari atxilotu zuten, baina denak egun berean utzi zituzten aske kargu gabe, dirudienez San Jorge elizako parrokoaren bitartekaritzari esker.

## Urtarrilak 31

### FRANKISMOAREN ZENTSURA ETA KARGUGABETZEAK

Santurtziko leherketaren berria nazioartean zabaldu zenean, autoritate frankistak gertatutakoa estaltzen edo makillatzen saiatu ziren. NO-DO telebista albistegiak errudunik gabeko erreportajea erabili zuen irudia garbitzeko: esan zuen hildako udaltzaina lehendik gaixo zegoela eta bere heriotzak ez zuela istripuarekin zerikusirik.



Hilaren 31n alkatea kargugabetu egin zuten eta bere ordez Antonio Cortadi jarri zuten.

## 20 urte geroago

### BARRAKOIAK, BAZTERKERIAREN SINONIMO

Telmo Zarraonandia Zarra futbolariak, Jesús Loroño eta Federico Martín Bahamontes txirrindulariek eta garaiko beste pertsona famatu batzuek beraien objektu pertsonalak eskaini zituzten Bizkaiko Gobernu Zibilak Santurtziko herriaren alde antolatu zuen enkanterako. Espainiako Gobernuak Etxebizitza Ministerioak kaltetuak hartzeko "behin behineko" 200 barrakoi eraiki zituen El Burgo izeneko zonaldean. Barrakoi horiek 20 bat urte egon ziren zutik, eta zonaldea bazterkeriaren sinonimo bihurtu zen eskualde osoan. Butano enpresak, bere aldetik, hainbat lokalen lagapena egin zion Santurtziko Udalari, gahien bat ekingiza soziokulturaletarako –hain justu haietako batean euskaldunduko ziren santurtziar asko geroago, urte luzez Santurtziko AEK-k egoitza nagusia izan baitzuen Fleming Doktoarearen kaleko 17. zenbakian-. Algortatik ateratako leherketaren argazkiak postal formatuan saltzen ziren herriko kioskoetan. Dena normaldu zen, baina Butano biltegiak ez ziren mugitu.



Eztandak gutxienez 259 etxebizitza suntsitu zituen Santurtzin eta jende hori guztia El Burgo izeneko auzune berrian birkokatu zuten behin-behinean. Prefabrikatutako etxola horiek 20 urtez iraun zuten zutik eta Ezkerraldean bazterkeria-gune nagusietako bat bihurtu ziren. [SANTURTZI.BIZ](http://SANTURTZI.BIZ)

---

## 'NO-DO' TELEBISTA ALBISTEGI FRANKISTAK ERRUDUNIK GABEKO ERREPORTAJEA ERABILI ZUEN IRUDIA GARBITZEKO

---

1974

### BELDURRA BERRIZ ZABALDU ZEN URTEA

Bizilagunek erabilgarri geratu zitzaizkien altzari eta arropak atera eta gero, hormigoi egitura baino ez zuten hormarik gabeko etxeak bota egin zituzten. Herritarrak berriz ohitu ziren arriskupean bizitzera, baina noizean behin, barruan gorderik zuten beldurra azalarazten zuen gertaeraren batek. 1974an beste leherketa bat gertatu zen inguruan, kasu honetan arto biltegi batean metatu ziren gasen eraginez, ACEPROSA enpresaren alboko pabilioietan. Hildako bat izan zen eta 13 lagun larri zauritu ziren, eta

santurtziarren artean 1967ko istripu handiaren paranoia esnatu zen. Zurrumurruek berriz butano gasa izan zela esaten zuten, eta askok eta askok, beldurtuta, etxeak utzi eta ihesari ekin zioten, zazpi urte lehenago egin bezala, oroimena ez baita norberak kontrolatu dezakeen zerbait.

### XXI. mendea

#### ALARMA-SIRENAK ORAINDIK PREST

XXI. mendearekin batera Butano instalazioak mugitu egin zituzten eta orain ez dago etxebizitzarik biltegiaren inguruan, baina santurtziarrentzat arriskua ez da askoz txikiagoa. Euskal Autonomi Erkidegoan arrisku kimikoaz ohartarazteko 14 alarma-sirena daude, horietatik 6 Santurtzin. Portua zabaldu eta urrundu zuten, kostaldeko leku gehiena herriari kenduz, baina trenbidez ateratzen diren arrisku handiko merkantziak Santurtzi erdigunetik ez ezik, Portugaletetik, Sestaotik eta Barakaldotik ere pasatzen dira oraindik. Portuko instalazioetan manipulatu diren gaiez ere ezer gutxi dakite herritarrek: merkantzia toxikoak, arriskutsuak, lehergailuak, armak... Gaur egun, inork ezin du ziurtatu santurtziar zaharrenen oroimenean dagoen historia errepikatuko ez denik. ●

## HIPOTESI ASKO, ERANTZULERIK EZ

1967ko istripuaz ikerketa seriorik ez zen egin. Leherketa ez zen biltegiaren bertan gertatu, trenbidean zegoen bagoiren batean baizik, eta elkarren ondoan zeuden beste bagoiak berotuz joan ahala lehertu ziren. CAMPSAko biltegi nagusiak, berriz, kanpoaldetik baino ez ziren kaltetu.

Lehen leherketa izan zen tokia, karga eta deskargarako terminala –trenentzako bazterbidea zuena–, egun horretan bertan inauguratu zen. Beraz, batzuen ustez esperientzia edo instalazioaren ezagutza falta izan zitezkeen istripuaren arrazoi nagusia. Beste iturri batzuen arabera, biltegitik trenera gasa garraiatzeko erabiltzen zuten mangera askatzeak eragin zuen tragedia. Ontzien kalitate eskasa ere aipatu izan da, 536 gradu zentigradu baino ez baitzuten onartzen, eta askoz gogorragoak behar zuten izan. Beste batzuk butano likidoa isuri zela esaten zuten...

Butano enpresaren gerenteak, Benito Cid de la Llavek, tren istripu bati leporatu zion gertatutakoa: bagoiak kargatzen ari zirela, lokomotora batek tren jo zuen, mangera puskatu eta lehen leherketa sorraraziz. Edonola ere, ez zen aurkitu istripuaren arrazoi edo erantzule zuzenik. Garaiko txosten baten arabera, portuan eragindako kalteak orduko 30 milioi pezetetakoak izan ziren.



# KIMU BERRIEN GOZAMENA



JAKOBA ERREKONDO  
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

**N**eguaeren agurra zainzurien (*Asparagus officinalis*) emanak boro-biltzen du. Eder askoak jaten ari gara oraintxe. Heldu ahosabaiaren erronkari, eta jarri landare batzuk baratzearen bazter batean. Ez dago barazki errazagorik. Eta hogeit urtez izango dituzu zainzuri freskoak, neguaeren amaiera eta batez ere udaberria gozatzeko. Oraintxe landatzen dira sustrai zarpak. Sustrai horiek landarearen elikagai erreserbak izango dira, eta, urtea joan urtea etorri, eguna luzatzen sentitu bezain pronto eta giroak laguntzen duenean, kimu samurrak sortuko dituzte. Kimu asko hartzeko, eman ongarririk erruz, urtean bitan onena. Badakizu, eman eta hartu. Maiatzaren amaiera arte kimuak moztu eta jan.

Hortik atzerakoak utzi hazten, sustraiak janariz bete ditzaten. Hotzarekin horitzean, moztu, eta kimu berrien zain eseri. Maiatzean

kimuak mozteari uztean eta adarrak horituta moztean ongarritu.

Zainzuriari kimuak jaten dizkiogun antzera, landare askorenak jan daitezke. Adibidez, lapa-belarrarenak (*Arctium lappa*). Honek beste izen batzuk ere baditu: lapaitza, amanu, belaun-belar, iraxkor, apo-xatar, karlotx, lapatxa-belar, lapata, lapatin, maite-belar, orkatz-belar eta urre-burusi ere esaten zaio, eta haren fruituak: orkatz, ohoin, lapagarratz eta abar. Horren zurtoin eta hosto berriak oso onak omen dira. Aurten dastatu behar ditut. Gure oiloek larratu edo bazkatzen duten sailtako bat lapa-belarrerez josita dago. Oiloek ez dute ukitu ere egiten. Belar ia denak jaten dituzte, asuna (*Urtica dioica*) eta lapa-belarra dira bazkalekuan nabarmen geratzen direnak, oso-osorik. Asuna bezala egosita jan beharko dugu, hasteko, Erdi Aroan hala jaten omen zuten-eta. Gogoan izan: hosto eta zurtoin berri bigunak. Sator lanetan hasi nahi izanez gero, sustraiak ere jaten zaizkio: berriak gordinik eta zaharrak egosita. Denak dastatu beharko ditugu.

Lapa-belarrak bizi den luraren ezau-garri asko adierazten ditu. Materia organiko ugari lurretan hazten da, batez ere landareetatik eratorritako materia organiko oso zaharra dutenetan. Lur horren pHa 5,5 eta 6,5 artekoa izango da maizenik, eta kaltzio, potasio eta magnesiotik ondoso izango du. Horiek onak izan daitezke, baina txarretik ere azaltzen du: aziendak, makinak edo dena delakoak zanpatu eta trinkotutako lurra, lur itoa. Beraz, lapa-belarra asentatua dagoen lurra oro har baratze gintzarako egokia dela esaten ari zaigu, jarduera biologiko biziko lurra dela, onddo, bakterio, zizare eta abarrez ondo jantzia.

Baratze horretan landarea bera ere erabili ahaliko dugu: hostoen minda mineralizatzaile ona da oso (ur litroko 100 gramo hosto); sustraiak egositako urak intsektuak uxatzen ditu. Eta, esan bezala, barazki jangarria da, baita sendabelarra ere. ●





## SORBURU BARATZA

BEHE BIDASOAKO BARATZE  
KOLEKTIBOA KIDE GEHIAGOREN BILA

**GARAZI ZABALETA**  
@TIRIKITRANN

**D**uela zazpi bat urte abiatu zuten Hondarribia inguruko zenbait herritarrek Aldatsa baratze kolektiboa. Iazko urtarrilean, ordea, ekoizteko moduan zenbait aldaketa tarteko, izena ere berritzea erabaki zuten: Sorburu Baratza da geroztik, eta Hondarribiko udalak utzitako 5.000 metro koadroko lur-saila lantzen eta kudeatzen dute hogei familia baino gehiagoren artean. “Laburrean, Sorburu Baratza kaletarrek egingako agroekologia da”, azaldu du Aritz Lekuona Rekalde kideak. Ohikoa da herri askotan baratze eremu zabala zati txikitik banatuta egotea; ez da hori Hondarribiko kasua: hemen baratze bakarra lantzen dute kide guztien artean. Kolektiboan aritzea da haien berezitasuna, beraz.

## ELKARRENGANDIK IKASTEN

Kontsumo propiorako barazkiak ekoiztea da proiektuaren azken helburua, baina hori baino gehiagorako bide ematen die Sorburuk. “Gutako batzuek besteek baino eskarmentu gehiago dute nekazaritzan, baina denen artean goaz ikasten eta agroekologian sakontzen, esperientzia hartzen”, dio Lekuonak. Urte osorako plangintza egiten dute bospasei lagunek gidatzen duten talde motoretik, laneko ordutegiak eta erein eta landatuko dutena zehazteko. Talde horretaz gain, astean zehar baratzeko lanak egiteko langile bat ere badute, jardunaldi erdian kontratatuta.



“Asteburuero bazkideak elkartzen gara lanak aurrera eramateko, eta lan ordu kopuruaren arabera ordaindu beharreko kuota ere aldatu egiten da”, azaldu du funtzionamendua. Barazki saskiak larunbatero jasotzen dituzte kideek, baratzean bertan. “Proiektu ‘erdiprofesionala’ da gurea. Bazkide bakoitzak ahal eta nahi duena jartzen du, ez da nahitaezkoa lanera etortzea, baina elkartzen garenean ez dela izaten lanean gelditu gabe eta sufritzen aritzeko. Hamaiketako egiten dugu, barbakoa...”. Hondarribiko, Irungo eta Hendaiaiko herritarrak daude proiektuan, eta adinaren aldetik, zahar nahiz gazte, denetatik dagoela dio kideak.

## NEKAZARITZA BIOINTENTSIBOA

Baratzeta lantzeko moduan aldaketak egin zituzten proiektuko kideek iaz, eta nekazaritza biointensiboaren bidean

sakontzeko hautua egin zuten, frantsez *marâchage sur sol vivant* –lur biziko nekazaritza– deitzen dutena. “Ez diogu lurrari buelta ematen, eta ongarrizko simaurra baino gehiago konposta darabilgu, sistema biointensiboa jarraituz”, dio Lekuonak. Intentsibo hitzak ez du nekazaritza konbentzionalerako darabilgunarekin zerikusirik, kasu honetan. “Gu bezalako proiektu txikiak berez askoz intentsiboagoak gara, eskulanaren aldetik, ongari organikoen erabileran... eta, gainera, gauzak ongi badoaz, metro koadroko ekoizpen maila handia da. Gezur handia da ekologikoak ezin duenik mundua elikatu”, amaitu du Lekuonak.

Proiektua zabaltzeko helburuz bazkide gehiago lortzeko kanpaina abian dute Sorburuko kideek. 30-35 bazkide arte handitu nahi dute taldea, eta hurbileko jendeari bertan parte hartzeko dei egiten diote. ●

**ekologikoa,  
dena hobetzeko!**



Estatuko Nekazaritza eta  
Elikagai Ekologikoen  
Kantaria  
Commissi de Agricultura y  
Alimentacion Ecologica  
de Euzkadi

Babesleak:



“

Daramagun bidea, hein handi batean, ‘zuk zeuk egizu’ erabatekorantzkoa da”

## UGER

Kräter, Boa Morte, Transición, Striknina, Artaza Combat, Lavadoras Martin, Yangtze Kiang edota Kikärtor bezalako taldeetatik datoz Ander, Borja, Haza, Iker eta Jon. Ohi duten eran, inguruetakoko eszena alternatiboaren parajeetan bueltaka zebiltzala gurutzatu ziren beren bideak 2016an, eta topo egite horretatik sortu zen Uger. Hasieratik konektatu dute, eta horri dagokio gaur arte egin duten bide emankorra. 2017an kaleratu zuten sei abestiko disko homonimoa, 2018an ikusi zuen argia beste sei abestiko // lanak, eta otsailean atera dute labetik *Lehengo lepotik burua* LPa, DDT Banaketak eta Sua Industry zigilu autogestionatu eta anti-komertzialekin. Estilo propioa zizelkatu dute sei urte hauetan, eta hori nabaritzen da azken lanean; bederatzi abestien rock doinuek beren zizilua daramate. Elkarrizketa bat aski irabazia zutela iritzirik, boskotearekin bildu gara. Zuekin, Uger taldea.

AMAIA LEKUNBERRI ANSOLA 📷 HODEI TORRES

**Donostia zen hasiera batean taldearentzat proposatutako izenetako bat. Uger izena aukeratzeko amaitu zenuten. Bada ezer ugerra baino bilbotarragorik?**

**Iker.** Hasieran ez genuen elkar ezagutzen, eta ez genekien zein estilo jorratuko genuen ere. Nik buruan neukan ideia punk-rock-a egitea zen, eta horregatik nerabilen buruan Donostia izena. Denbo-

rak ematen duen perspektibatik begiratuta, ez dauka inongo zentzurik, ez dator bat sortu dugun taldearekin. Nahiz eta izena gustatzen zaidan oraindik.

**Ander.** Agian urte eta erdi egon ginen izena aukeratzeko.

**Haza.** Uger Urik [Ander] proposatu zuen, nahiz eta gero ez zuen izenak konbentzitzen. Niri asko gustatu zitzaidan proposamena, eta mehatxu egin nien: “Hilabete



eta erdian ez bada laurok konbentzitzen gaituen izenik ateratzen –orduko hartan Gago [Jon] ez baitzegoen taldean–, Ugerekin geratuko gara”. Tratua onartu zuten, eta denbora hori igarota Uger izatera pasa ginen.

**A. Ugerra eta kedarra** Sonia Gonzalezen eleberria da, Bilbon kokatua. Eta gero Gagok kanta bat egin zuen Bilbo griseneri buruz hitz egiten zuena, *Ugerra* izena duena, eta gauza horiekin berez ez zeukan zentzua eman genion taldearen izenari.

**Entsegu lokalean asko eztabaidatu ohi duzuela diote hor zehar. Nolako da Ugerren abestien sorkuntza prozesua?**



Ezkerretik eskuinera: Borja, Jon, Haza eta bere seme ekai, Ander eta Iker.

**I.** Sorkuntza prozesuak aldatzen joan dira etapa bakoitzarekin, etapa deitu ahal baldin bazaio disko bakoitza grabatu dugun garaiari. Eta orain heldu gara, nik uste, hainbeste eztabaidatzen ez dugun puntu batera. Iruditzen zait oso presente ditugula asko eztabaidatzen genuen garaiak, eta horregatik dugula asko eztabaidatzen dugunaren sentipena, hala ez denean ere. Aurretiaz asko eztabaidatu dugulako.

**Borja.** Ba ni ez nator bat horrekin [barre eztanda taldekideen artean].

**H.** Bost gara eta beti dago gutariko norbait kontra agertu ohi dena, besteen arteko adostasunaren aurka. Paper hori txandakatu egiten dugu.

**I.** Are, arau bezala hartu dugu.

**B.** Horretan behintzat bat gatoz denok.

**I.** Lau baldin bagaude entsegu lokalean eta bosgarrena bidean bada, ulertutzat jotzen dugu kontrakoa dioen iritzi bat egonen dela.

**A.** Eta hala izaten da, beti gertatzen da berdin.

### **Eztabaidek ere egingo diote ekarpenik taldeari, diot nik.**

**I.** Orain arteko esperientziak eta eztabaida horiek guztiek ikaskuntza prozesua ekarri dute berekin. Gagoren figura garrantzitsua izan da hor, hori bai. Gutariko bakoitzak badu musika sentitzeko bere modua, eta Gago horren itzultzaile gisakoa da, lengoia musikala ezagutzen baitu. Demagun esaten dudala: “Abestia pozgarriagoa izatea nahi dut, edo goxoagoa”.

Eta berak erantzuten du: “Ba hirugarrena maiorrean sartuko diogu ez dakit zein notatan”, eta hartzen du teklatura edo gitarra, eta buruan duena jotzen du. Eta gainontzekoek entzuten dutenean, ulertzen dute ni proposatzen ari nintzena.

**B.** Instrumenturik jotzen ez duelako ere izan daiteke. Besteok bakoitza gure instrumentuarekin gaude, eta hori bada defentsa-murru bezalako bat. Uste dut horrek eragina duela, sarri besteen gainetik jotzen duzulako, edo niri behintzat gertatzen zait. Baina instrumenturik ez daukazunean... gertatzen da instrumentua jotzeari uztea, eta bat-batean kanta beste era batera entzuten duzu, ez zeure instrumentutik.

**Jon.** Nire iritziari, hasieran frogak egiten

ari ginen gehiago, jolasten. Baina denborak hasieran ez genuen egitura eman digu, erosotasuna eta goxotasuna bermatuz hainbat aspektutan, baina beste batzuetan beharbada zailtasunak ere ekarri dizkigu. Bakoitzak baduelako, Borjak esan duen bezala, bere horma moduko hori, instrumentua izan daitekeena. Nik ahotsarekin ere sentitzen dut. Eta horrek ez du zertan esan nahi nabarmendu nahi duzunik, baizik eta perspektiba batetan egonkortu zarela. Hein batean, horrek polarizatu egiten duela uste dut, baina lagundu ere bai, konposatzeko orduan kokatu egiten baikaitu. Esango nuke horrek eraman gaituela behar baino gehiago eztabaidatzera. Begira zein tontoki atera zen taldearen izena; gaur egun xede komun bat jarriko bagenu, gehiago kostatuko litzaiguke konpliztea. Beste era batera esanda: lehen helburuak errazago betetzen genituen, jolasean ari ginelako; eta orain dena egituratuago dagoenez, ba ez.

**Edozelan ere, abestiak egiteko zuen erritmoak erakusten du eztabaidetan katramilatzetik urruti, musikarako tartea ere aurkitzen duzuela entsegetan.**

**A.** Denborarekin, abestien sorkuntza pixka bat arintzeko, gutako bakoitzari horietako baten gidaritza esleitzen hasi gara.

**H.** Bai, lehen demokratik ginen. Eta konturatu ginen ez duela funtzionatzen.

**I.** Konposaketa prozesua ere aldatu da. Egun baliabide teknikoak ditugu etxean, eskura, eta horrek erraztu egiten du bakoitzak buruan daukan ideia transmititzea, materializatuta daramazulako entsegu lokalera, riff batean edo dena delakoan. Entzun daiteke, ukigarria da. Ez zara hasten esaten “jo RE, jo DO, jo ez dakit zer”. Zuzenean esaten diezu “entzun hau”. Eta horrek arindu egiten du dena.

**Erditu berri duzue azken lana. Zein sentipen nagusitzen zaizkizue?**

**H.** Hainbeste denbora darama grabatuta, ez didala ilusiorik egin argitaratzeko.

**A.** Bat egiten dut sentimendu horrekin, erabat. Badago norbait bestela bizi denik? Nor da kontra daraman bosgarrena honetan?

**B.** Hainbeste denbora eman dugu diskoa heltzeko zain...

**H.** Hurrengo diskoan pentsatzen ari gara dagoeneko. Disko hau grabatu zenetik badira kasik bi urte, eta orain hurrengoan pentsatzen gaude, ez kaleratu berri



dugunean.

**I.** Bai, horretan esango nuke bostok gatzela bat.

**H.** Kaka, adostasuna. Ugerren akabera ikusi berri duzue.

**Nolakoa izan da azken diskoa sortzeko prozesua?**

**B.** Kostatu zaigu. Oroitzapen hori daukat, zaila izan dela, sarri tristeza ere bai. Ez da lar atsegina izan.

**H.** Frustragarria zatika.

**I.** Beti bilatzen genuen abestiarentzat onena, eta ahaztu egiten ginen taldeki-deez.

**A.** Nik ondorio argirik atera badut prozesutik, izan da Uger bidea dela eta helmuga ezberdinak daudela, baina zehatzik batere ez, asko izan baitaitezke. Geu gara erabakitzen dugunak zer egin nahi dugun bidean, eta disfrutatu behar da bide horretaz. Azken finean biziari zentzua ematen diotenak gauza txikiak dira, eta horietako bat da astero entseatzera joatea. Esango nuke ideia hori elkarbanatzen dugula.

**I.** Beste elkarrizketa batean esan zenuen gauza bat oroitu dut. Lehen gauzak egiten genituela inolako arrazoiren beharrik gabe, kapritxo, eta orain are gehiago. Uste berekoa naiz.

**A.** Bai, garrantzitsua hori delako: bidea. Eta ez inora heltzea.

**Grabaketa bidali eta LPa eskuetan izan arte, hilabeteak itxaron behar izan dituzue. Tarte horretakoak dira**

**sarera igo dituzuen hainbat abesti solte, bertsioak direnak. Itxaronaldia arintzeko modua izan da?**

**A.** Diskoak argia ikusi arteko itxaronaldiaren agonia arintzeko, grabaketa horiek egiten hasi ginen. Pandemia garaiko hausnarketek-eta bultzatuta, nire kabuz hasi nintzen grabatzen ikasten, mikro batzuk eta soinu txartela erosi nituen, eta denborarekin animatzen joan ginen...

**H.** Eta gertatu zaigun onena izan da.

**A.** Askok aberastu du taldea, guztiok ikasi baitugu pila bat gure instrumentuaz, ohartu gara zein izan diren ezjakintasunagatik aurreko grabaketetan egin ditugun akatsak... Orokorrean, denok ikasi dugu mordoia Ugerri buruz. Egia esan oso esperientzia gogobetegarria izan da.

**B.** Gure abesti onenak dira gainera. Pena bertsioak izatea!

**Anari, Dut, BAP!, Sonic Youth, CAN edota Hüsker Dü taldeenak dira bertsioak. Zuen erreferentzien gainean ideia bat egiteko balio du?**

**H.** Ez.

**I.** Egin daiteke ideia bat, baina okerra.

**A.** Bakoitzak gauza ezberdin bat esango dugu honen gainean.

**I.** Horregatik eztabaidatzen dugu hainbeste. Bakoitzak baditu bere influentziak, eta hori bada, hein batean, hainbeste eztabaidatzearen arrazoia.

**H.** Niri dagokidanez, BAP!-eko baxua bai iruditzen zait influentzia zuzena. Anariko ez. Eta berbera da, orain ohartzen naizenez.



## UGERREN KONTZERTU BAT

J. Sapueteke kontzertuaren oroitzen onak dut nik.

H. Bertan jo zuen azken taldea izan ginen, egia.

B. Eta gure lehen zuzenekoak. Nik ere horren oroitzen oso berezia daukat.

I. Garrastatxuko kontzertua antolatzen zutenari ez diot propaganda-rik egin nahi, baina legea preskribatuta egonik, behingoz hitz egin daiteke egun hartaz. Kontzertu ilegala izan zen, nik haritz baten azpian amaitu nuen gaua, pandemiaren geundenez Polizia etorri eta ezkutatu egin behar izan bainekin. Oso dibertigarria izan zen!

## MUSIKA TALDE ERREFERENTZIAZKO BAT

H. Bérurier Noir. Eta The Monsterters.

A. CAN.

I. Egun errebeldia mantentzen jarraitzen badut 16 urterekin Eskorbuto entzuten nuelako da. J. Nik ez dut apenas musikaririk entzuten. Autoan beti noa isilunean, adibidez. Entzuten dudana musika ia guztia zuok konposatzen duzuen da, edo nik konposatzen dudana. Pixka bat tristea da. Ez nuke jakingo zein talde izendatu. Konposatzeko, errekurtsio puntualerako... influentzia asko ditut; orain Elliot Smith etortzen zait burura adibidez, edo Radiohead... Eta ikaragarri gustatzen zaidan taldea: Dut.

## NOREKIN PARTEKATUKO ZENUKE OHOLTZA?

B. Agian onena hori ezagutzera ez ematea da, ezta? Zeren espektatibak sortzen dituzu zeure baitan. Eta kontrara, gertatzen da derrepente norbaitekin jotzea eta esatea, "jo, ze ederra izan den talde honekin jotzea!".

H. Bai, batzuetan jo ostean konturatzen zara horretaz. Eta aldiz, norbaitekin jotzeko gogoia izan dezakezu eta gero esan: "ze baboa".



**LPa iritsi arteko itxaronaldian diskoa irekitzen duen Xedea eta fedea abestiaren bideoklipa ere kaleratu zenuten. Emotiboa da, jasotzen baititu hainbat zuzenekoak, espazioaren, momenturen eta pertsonaren irudiak. Bidelagunei eskertza moduko bat, akaso?**

I. Lehen aipatzen genuen Ugerren ia dena egiten dugula kapritxoak, eta bideoklipa ere hala izan zen. Urik hainbat grabazio zituen Super 8 kamera batekin eginak, gauza askorenak, testuinguru ezberdin ugariak. Momentu horiek guztiak biltzeko gogoia neukan, betiketarik gera zitezkeen. Denak abesti baten bueltan jartzea bazen aukera bideoak editatzen ikasteko, eta bide batez momentu horiek guztiak bizi guztirako gordetzeko. Besterik gabe egin nuen, baina orain asko gustatzen zait ikustea, jende eta momentu asko biltzen dituelako lau minutu eta pikoan. Ederra da, garai bat gordeta geratu delako.

H. Argazki baten gisakoa da. Denbora igarota ikustean, beharbada ikusiko duzue jada ez dagoen jendea, edo ezberdin dagoena, edo...

A. Edo dagoeneko existitzen ez diren tokiak... Azken finean, aitzakia horrekin, nik soinua grabatzen ikasi dudana bezala, Fikerrek [Iker] bideoak editatzen ikasi du. Eta daramagun bidea, hein handi batean, *zuk zeuk egizu* erabatekorantzkoa da, oharkabea. Zeren horretaz gain, taldeko kamisetak ere Hazak egiten dituzte, etxean duen serigrafia tailerrean. Kaseteak egiteko makina bat erostea besterik

ez zaigu falta!

B. Eta riff-ak gureak izatea [barre algaraz eztanda].

**Bigarren diskotik hirugarrenerako tartean deklaratu zuten pandemia egoera. Nola eragin dizue? Zer suposatu dute Ugerrentzat kultur alorrari jarritako mugek?**

H. Ziurrenik garai horretan zuzeneko gehien eman dituen taldea izan gara. Espazio okupatuak, autogestioak, pirata, ilegalak... direnez jotzeko gure tokirik gogokoena, ez digu geldialdirik eragin. Biltzen ere jarraitu genuen, tarteka entseatzen zuen talde bakarra ginen, 32 entsegu lokaleko espazioan.

J. Nik sentitu izan dut prozesuari eragin diola. Ez helburuari, Hazak esan duen bezala momentu oro tira egin baitugu aurrera, gertatzen zena gertatzen zela; baina bai eragin dio prozesuari. Izaki oso plastikotzat dut nire burua, sentitzen dut jendetzaren mareak eragiten didala, eta sarri nire diskurtsoa oso bat datorrela iritzirik publikoarekin, hori ere bai. Zentzu horretan, garai horrek eragin izan dit abestean sentitzen nuen erosotasunean, murrizturik ikusi baitut. Ez naiz sentitu lehen bezain eroso, egoeratik aurretiaz ohikoak ez ziren galdera eta kuestionamenduei aurre egin beharrean ikusi naiz... eta pena da, zeren aipatzen genuen bezala hau gozamen iturri den prozesu bat da, asetzen zaituena, izateko zentzua ere ematen dizuna, eta zentzu horretan bai izan da pixka bat gogaikarria.

**H.** Zeharo absurdoak diren gauzak, arauak, inposatzen dizkizutenean, desobeditzea betebeharrak morala da.

**I.** Hori egitea tokatzen zen. Aurrera egitea, zuzenekoak jotzea... ezerk ez baitzeukan zentzurik. Desobeditu genuen, eta hala egiteko tresna legalak ere eskuratu genituen. Elkarte egin eta IFK lortu genuen, eta horrekin ibiltzeko baimenak egin genitzakeen. Lanak hartu genituen ziur egoteko gauzak ondo egiten ari ginela, eta legeari dagokionez ere bizkarra zainduta geneukala ziurtatzeko. Lasai egon nahi genuen.

### Itzul gaitezen azken diskora. Hainbat musikariren kolaborazioak aurkituko ditu entzuleak.

**I.** Niri ilusio gehien egiten didan kolaborazioa nerabegaroko lagun Julen Egiarena da. Oporrak pasa ohi nituen herrian ezagutu nuen, No Konplyn taldekide izan nuen, eta *Xedea eta Fedean* kolaborazioak egin ditu. Emaitzarekin oso pozik nago eta ikaragarri gustatzen zait gordeta utzi izana. Zeren tamalez pertsona horrekin ez daukat hainbesteko harremanik, eta gustatzen zait berataz gogoratu ahal izatea abestia entzuten dudanero.

**H.** Boti [Roberto Castro] da beste kolaboratzaileetako bat, hogeitaka urte atzeragotik laguna dudana, eta sekulako gogo-

nuen berarekin abesti oso hippy bat egiteko. Bikain atera zen, Ugerrek egindako abesti guztietatik gehien gustatzen zaidanetako bat da *Interludio*.

Eta gero Josebaren [Baleztena] eta Mirenen [Narbaiza] kolaborazioak daude. Pare bat aldiz jo izan dugu elkarrekin, ondo konpondu gara, eta uste dut denon izenean hitz egingo dudala esatean beren lana miresten dugula. Horrexegatik egin genien haiei ere proposamena, eta oso pozik gaude beren baiezkora jaso izanarekin, kolaborazio oso polita izan baita. Ikaragarri gustatzen zaigu jendearekin gauzak egitea.

### Lehenago lepotik burua esku artean izan arteko itxaronaldi horretan sortuko zenuten abesti berriren bat edo beste. Martxan da laugarren diskoa?

[Bai, erantzun dute aldi berean]

**A.** Laugarren diskoa grabatzen hasita egon ahalko ginatke berez, atzeratzen ari gara. Sei edo zazpi abesti grabatzeko asmoa dugu. Ilusioz beterik gaude, guk grabatuko dugulako laugarren diskoa, denon artean. Batez ere nik, baina beste guztiok ere asko ikasi duzue tarte honetan guztian, eta boston arteko prozesua izango da. Borroka asko egingo dugu elkarren artean soinuari itxura eman arte, eta hori

egingo dugu aurreko grabaketa egin zigun estudiokoak baino bitarteko pobregoe-kin. Baina nik behintzat ilusio eta hasteko gogo handiak ditut. Eta aurrerapen gisa, diskoa pixka bat *moñas* izango da, hala aterako zitzaigula komentatzen genuen aurreko batean.

**B.** Hain izango da makarra, *moñasa* izango dela.

**H.** Beharbada ez da disko bat izango. Abesti batzuk grabatuko ditugu eta ikusiko dugu zer egiten dugun horiekin.

### Talde bezala, baduzue guraririk?

**A.** Helburu bat izan zitekeen erabat burujabeak izatea, eta bidean goaz. Bakarrik manager bat falta zaigu [barre].

**H.** Entzumenezkoan, grafikoan... bai, burujabetzarantz goaz. Gurari hori gustatzen zait. Bestetik, niri gustatuko litzaidake autogestionatutako eta okupatutako espazio ahalik eta gehienetan jotzea. Nahiz eta jakin badakidan diodanak erromantizismotik baduela.

**I.** Talde bezala endogamia batean bizi gara. Mugatu xamar gaude eremu batera, eta poz-pez aritzen gara bertan, baina falta zaigu kanpora ateratzea. Hazak esan duen bezala, ederra litzateke autogestionatutako eta okupatutako hainbat espazio ezagutzea, ahal izatera birak egitea... ●

Apirilekoa, kalean!

# EUSKARA IKASLEA ZARA? IRAKASLEA?



- EUSKARAZ IRAKURTZEKO OHITURARIK EZ DUTENENTZAT
- BALIAGARRIA EUSKARA IRAKASLEENTZAT
- 10 ZENBAKI URTEAN

Egin harpidetza [aizu.eus](http://aizu.eus) atarian. Harpidetza digitala, paperezkoa edo digitala+paperezkoa.

## KORRIKA 22



DANI BLANCO



ALBERTO ELOSEGI



DANI BLANCO



ARGIA ARTXIBOA

Goitik behera, ezker eskuin: ARGIA eta Antzako kideak lekukoarekin Lasarte-Orian 2019an, astekariaren mendeurrenean; Korrika Donostiara iristen 1999an; Lasartetik Zubietako bidean korrika ARGIAren kilometroan, 2009an; Korrikaren bigarren edizioan, 1982an, haurrak protagonista.

## Egunerokoan euskaraz 'hitzekin' dadin

### ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

**B**elaunaldi osoak markatzen dituzten publizitate kanpainak ezagunak dira. Eman buruari pixka bat eta minutu batean baietz bat baino gehiago atera. Niri Colacao-ren kanta –arrazista samarra, portzierto– edo Nocilla-rena etorri zaizkit gogora berehala. Bakoitzak ditugu gure erreferentziak, baina zenbat slogan eta kanta sartzen dizkiguten barru-barruraino saltzaile handiek. Zein onak diren kabroiak. Herri txiki honetan espainolezkoak eta frantsesezkoak dira nagusi gure buruetan, baina bada Euskal Herri osoan aspaldi ezagun den eta oraindik funtzionatzen duenik. Zergatik aldatu? Ika ika ika...

1980. urteko afari batetik sortutako ideia hasiera batean suizida samar batek

oraindik ere bi urtero ilusioa pizten du, herri batean sartzen ikusten direnean kolo-retako argiak, entzuten denean musika eta sumatzen direnean bozgorailuetako animo ahotsak. Testigua badatorrela sentitzean. Lehengo urtean izan behar zuena beranduxeago badator ere, iritsi da eta ARGIAK urtero moduan jarriko du bere aletxo.

Lasarte-Orian egiten dute ARGIAko lagunek kilometroa, Antza inprimategiko kideekin batera, euskalgintzan diharduten bi enpresaren arteko lotura irudikatuz. Aurten, gainera, Ametzagaña talde berekoa den lametza ere batuko zaie.

Txartel hotelaren aurreko biribilgunean tokatuko zaie Amurriotik bueltan Donostiarako bidean den testigua era-

## Argiak jarraipen berezia egingo dio Korrikari

Martxoaren 31n Amurrión hasi eta bi astez luzatuko da Korrika, euskararen aldeko ekimen erraldoia, Donostian apirilaren 10ean amaitu arte. Bi mila kilometro baino gehiago guztira. Denbora horretan ARGIAK jarraipen berezia egingo dio lasterketari, herriz herri eta egunez egun.

Leire Artola kazetaria ariko da zeregin horretan, zuzeneko jarraipena egin eta hitzetatik ekintzetara igaro diren protagonisten historiak azalduz.

ARGIAren sare sozialetan zabalduko ditugu irudi ikusgarrienak nahiz momentu aipagarrienak, eta bideo landuak ere egingo ditugu.

Hori guztia Argia.eus-eko Korrika 22ren kanalean aukituko duzu, QR kode honetan.



matea, apirilaren 8an goizeko 7:10 inguruan. Gogotsu dago lantaldea euskararen aldeko ekitaldirik jendetsuenean parte hartzeko, eta bere komunitate osoari, lagun guztiei, gonbita luzatu nahi die kilometro horretara gertura daitezten; ARGIA ez baitu lantaldeak bakarrik egiten, irakurleek eta lagunek ere bai, denon arteko lotura estua euskara baita.

Egin dezagun korrika euskaraz, baina ahaztu gabe egunero oinez ibiltzea ere euskaraz ederragoa dela, egunero kantatzea eta kontatzea ere euskaraz xarmantagoa dela, egunero erosketak egitea ere, dela politagoa euskaraz. Egin dezagun Korrika hamaika egunez, egunerokoan euskaraz *hitzekin* dadin. ●



LIBURUA

# Neguak ere badu udatik



**UDA BETEA**  
**ARITZ GORROTXATEGI**  
 ELKAR, 2022

**MADDI GALDOS ARETA**

**N**eguak ere badu udatik: aurten-goak bai bederen. Pikondoek fruitu eman dezaten itxaron egin beharko dugu oraindik, baina loratzen hasiak dira biluzik ziren adarrak. Neguak ere badu udatik, eta horrela heldu zaigu aurtengoan Aritz Gorrotxategiren (Donostia, 1975) *Uda betea* (Elkar, 2022) poema-liburua. Azken lan hau bere bosgarrena dugu poesiari dagokionez.

Aurretik ere egina zigun Gorrotxategik itsasoratzeko gonbita, eta kostaldeetara bidaia dezagun galdegiten dirau bilduma honetan ere, tartean, dagoeneko onduta dituen irudiak berreskuratu zein berrituta: hariak eta zaldiak, baleak eta harriak. Lisboa, Britainiako txokoetara, Sena eta Yangzi ibaietara,

Collioureko erbestealdi zein egoitzetara garamatzate poemek, baita hurrago ditugunetara ere. Han-hemenka diren urek oihartzunak sortzen dituzte irakurlearen baitara.

Itsasaldien zikloak ingurukoak eraitsi eta irentsi egiten ditu itsasgoran, baina agerian uzten ditu itsasbeheran sakonune ezezagun eta desertu hezeak. Aurkia eta ifrentzua, bakarra denaren bi aldeak. Itsasaldien gorabeherak islatzen dute, hala, bizitzaren eta heriotzaren arteko harremana: "Hondoratu da ontzia / ez pentsatu horretan. / Lehenago edo beranduago / helduko da hondarrera / joko du harkaitza, edo / besarkatuko itsasertza. / Ez dakigu non, ez dakigu noiz. / Horixe dugu geure alde". Zaurgarri gara izaki hilkorrok

itsasoaren hilezkortasunaren aldean, baina poetak dioskun gisara bizitzaren pattarretik ere bada zer eskuratu.

Aipamen eta aitortzaz mukuru da bilduma. Poetekin eta bestelako artistekin proposatzen diren hizketaldiek liburua bere burua gainditzera ere badaramate: badaramate irakurlea bestelako letra eta orrietara, baita doinu eta irudieta-  
 ra ere. Zuzenean datorkigu Battiatoren ahotsa, zeharka Sosarena, gomutatzen zaizkigu Matisseren leihoz bestaldeko kolore eta txalupak, Txillidak eraikitako tolesturak. Horretan baitatza, hain zuzen ere, artearen eta literaturaren indarra: berpiztu egiten dira hartzaileon aurrean izatez bizirik ez duten obrak, *Arkimedesen printzipioa* poemak agerian uzten duen legez. ●





MUSIKA

# Etorkizunaren nostalgia



EKHI ALDE

XALBA RAMIREZ

**E**torkizunaren nostalgia lehegailu bat da. Mark Fisherrek depresioaren ekonomiaz eta errealismo kapitalistaz hitz egiten zuen, buruaz beste egin aurretik. Ba al da beste errealitate posiblea? Zein da gure garaia? Iraganari begiratu eta gertatutakoari lekua egin diezaikegu, gure belaunaldiaren motxila pisutsuan. Belauniko, belaunkadaz belaunkada. Etorkizuna egunero asmatu beharreko erronka da. Eta Merina Gris lehegailu bat da.

Eraikin leheritu bateko kristalak sanpleatuz *broken beata* eskaini eta oihu zakarren eta melodia sinpleen artean

lotura asmatu dute zortzi kantu oso zaindu eta ekoizietan. Amorrua atera behar da, baina elkarrekin abestuz: *Os lo juro que es la ostia lo que tengo que contar*, ez geratu azalean. Zer da pop musika ez bada gure backgroundaren inguruan zubiak eraikitzea?

Ed is Dead, Alizzz eta Charlie XCX popa dira, Kortatu, Berri Txarrak eta Chill Mafia diren bezala. Elkarrekin abesteak sendatuko ditu zauriak. *Saitzen gara, ez dirudien arren*. Azken finen, *negar eginarazten digunaz barre egin dezakegu*. Lehen ez ginen zoriontsuago.



## ZERUA ORAIN MERINA GRIS

AIRAKA, 2022

Paskal, Julen eta Sara hirukoteak ez ditu oraindik harrotu beharreko hauts guztiak harrotu, baina etorriko da etorri beharrekoa. Elektronika eta iruditeria berri bat entseatzeko ari dira eta, zuzenean indartsuarekin.

Probintziakeriarik gabe, garaiari hel diezaikegu hemendik, guretik eta gurean. Hori da *Zerua orain*. Gu, etorkizun iluneko belaunaldi kamustu hau, *no future* esateko otzanegiak, dena errepikapena dela sinestarazi nahi dioten umezurtzak.

“Dena asmatuta dago”, diote. Guk diogu: dena dago egiteko. Eta Merina Gris lehegailu bat da. ●



# Déjà vu

✍ IÑIGO SATRUSTEGI 📺 DOSPORDOS

Izan zitekeen 2020ko martxoaren 6a: Jimmy Jazz aretoa, Skabidean *Izaera* disko berria aurkezten, COVID-19a gero eta zabalduago Euskal Herriko fokurik handiengan. Astebete beranduago konfinamendua. Baina ez. Bi urte beranduago *déjà vu* bat izaten ari naiz. Oraingoan *Hiri zahar zikina* lana taularatzen ari dira iruindarrak. Giroa arraro dago hasieran, oholtzan mikro bat falta dela ohartu gara eta musikariak arduratuta daudela ematen du. Dantzalekuan hotz egiten du, eta ez zentzu metaforikoan bakarrik.

Azken bi lanetako kantak tartekatzen ari dira, ska eta blues estiloa nagusi, baina *jotikaren* bat eta, spoiler, punka ere badaude. Idoia ari da Lorenaren hutsu-

nea betetzen, txaloak eskatu ditu gaixodagoen kidearentzat. Momentu batzuetan itotzeraino heldu da kasik. Ez da bere erregistroa eta *bitxo*a pasa berri du. Meritua aipatu dugu lagun artean. Publikoa harekin batera itotzen da. Baina, hala eta guztiz ere Idoiaren jarrera, ahotsa eta gaitasuna... Uau! Barka subjektibotasuna.

Kanta bat bestearen atzetik, girotu da aretoa. Dantzan gazteak eta ez hain gazteak. Argi epileptikoak eta biriketako aire guztia ematen ari diren zaleak.

Amaiera aldera eztanda egiteko unea heldu da, *gure unea*. Folklore nafarrak eragin ditu oilo ipurdi bat baino gehiago, *sortetxetik* ez hain gertu, eta Germanen oroimenez. "Nork esango zidan niri jota bat kantatzen dantzan jarriko nuela Gas-

## SKABIDEAN

**NOIZ:** Martxoak 10

**NON:** Jimmy Jazz (Gasteiz)

teizko jendea!". Gasteiztarrak direnak zein ez direnak gehiagoren gosez geratu gara. Biribila izan da, azken diskoko kanta onenekin egin dute agurra. Bukatutzat eman dute kontzertua, musika jarri eta biltzen hasi dira... Publikoak, ordea, badaki zer datorren, oihu egin dute: "Pipi!". Hastapenetako kanta jo dute eta entzuleak zoratu dira: aspaldiko zale txosneroak *temazoagatik* eta zale iritsi berriak, flipatzen.

Diotenez, *déjà vu*ak bizitako uneen bigarren aukerak dira, hobetzeko edo. Nekez hobetu zezaketen duela bi urteko kontzertu hura, eta hasieran zail zutelako ustea nuen arren, lortu dute. Espe-ro dezagun oraingoan ez dela itxialdirik etorriko. ●



# Bertso-zopa

Osatu Miren Amurizak 2018an Bizkaiko Bertsolari Txapelketan botatako bertsoa. Laguntza behar izanez gero, bertsoari falta zaizkion hitzak zopan bilatu. Doinua: *Sentimentu asko dauzkat nerekin*. Gaia: Asmo onez egin dozu baina ez dau ondo hartu.

Hamalau urte daukadaz eta bikotean perspektiba da \_\_\_\_\_ lokalera ta botatea sofa \_\_\_\_\_ nire gainean jarri da eta \_\_\_\_\_ erretira sartu atara, atara-sartu ziostan: "hau da desira" \_\_\_\_\_ dogu ta oihukatu dau: "Biba Miren, Miren biba" eta ni barriz isil-isilik goiko lanparei \_\_\_\_\_.

Nire \_\_\_\_\_ sofa ganean egin ahala garrasi lanparekin \_\_\_\_\_ amaitu jataz hamaika \_\_\_\_\_ behin honezkero lotsak alboan \_\_\_\_\_ hoba, kasi berari ez eze neure buruai gura dotsat \_\_\_\_\_ eskutik heldu ta pentsatu dot: "hoba masturbatzen hasi!" Belarri ertzera joan ta esan deusat: "ikusi eta \_\_\_\_\_!"

Haserretu da eta ni hasi najakona baxu-baxu ez deust ba erantzun oihu \_\_\_\_\_ izerdituta jo ta su: "zer uste dozu baina zuk Miren ni \_\_\_\_\_ al naukazu?" "Ez, ez maitea lerdoa ez baina nobatotxoa zara zu" eta esplikau deusudan \_\_\_\_\_ ondino argi ez badaukazu topau Google-en klitoria ta bertan \_\_\_\_\_ jatsu.



DANI BLANCO

Word search grid containing letters for the Bertso-zopa puzzle.

# Sudoku

ERRAZA

9x9 Sudoku grid with some numbers filled in.

ZAILA

9x9 Sudoku grid with some numbers filled in, labeled as ZAILA.

# Gurutzegrama

9x9 grid with red squares indicating the pattern for the Gurutzegrama puzzle.



BASOTXERRI

(alderantziz). **7.** Apustu bidezko karta-jokoa. **8.** Municipal. Oinazea adierazteko.

### GOITIK BEHERA:

- 1. Ferekatu. 2. Baserriko animalia. 3. Luzera neurria, metroa baino zerbait laburragoa. Kupela. 4. Azken eta hirugarren bokalak. Fruitu batzuen azal gogor. 5. Kokospeko haragizko tolesak. 6. Berria ez dena. Bizkaiko kostaldeko herria. 7. Gaixo. Kausa. 8. Doinu, melodia. 9. Emaztegai edo senargai.

### EZKER-ESKUIIN:

- 1. Aintzira. Arra. 2. Nafarroako udalerria (argazkian). 3. Zegoen. Izana adierazteko partikula (pluralean). 4. # ikurraren euskal izena. Holmioaren ikurra. 5. Lehen bi bokalak. Elkarren kontra bultzaka. 6. Nau. Haragiaren mintza

### EBAZPENAK

Hamalau urte daukadaz eta/bikotean perspektiba/da joatea lokalera ta/botata sofa erdira/nire gainean jarri da eta/kuleroak erretira/sartu atara, atara-sartu ziostan: "hau da desira"/amaitu dogu ta oihukatu dau./Biba Miren, Miren biba/eta ni barriz isil-isilik/goiko lanparei begira./Nire mutilak sora ganean egin ahala garrasi/lanparekin batera amaitu/jataz hamaika faneca/behin honezkero lotsak alboan/lagatzea hoba, kasi/berari ez eze neure buruai/gura dotsat/sorrerazi/eskutik heldu ta pentsatu dot./Hoba masturbatzen hasi./Belarri ertzera joan ta esan deusat: "ikusi eta \_\_\_\_\_!"//Hona ematen ditut/zer uste dozu baina zuk Miren/ni lerdotzen al naukazu?/"Ez, ez maitea lerdoa ez baina/nobatotxoa zara zu"/eta esplikau deusudan diana/ondino argi ez badaukazu/topau Google-en klitoria ta/bertan agertuko jatsu.

9x9 grid for the EBAZPENAK puzzle.

ZAILA

9x9 grid for the EBAZPENAK puzzle.

ERRAZA

Word search grid for the EBAZPENAK puzzle.

- ESKER-ESKUIIN: 1. LAKU, ZEHAR, 2. ABALGARR, 3. ZEN, OHIAK, 4. TRAOULA, HO, 5. AE, SOKRAN, 6. NAIKA, AIG, ERREK, 7. POKERRA, 8. UDAL, AIEI, GAITZ, 8. KANU, UPA, 9. AZKONGAI, 8. AHAIRE, 9. EZKONGAI.

# Natalia Sancha

KAZETARIA



EMILE ISSA

## LEHEN LERROTIK HARATAGO

“Azken hamalau urteak Ekialde Hurbilean eman ditut korrespontsal lanetan, Beiruten bizi nintzen. Siria, Palestina, Libia eta Irakeko gatazkez informatu dut. Eguna amaitzerakoan eta hotelera bueltatzean, beste kazetariekin biltzea zen ohikoena. Orduan konturatu nintzen emakume kazetariak istorio desberdinak genituela. Lehen lerroan egotea bezainbeste garrantzi du bira egin eta atzeguardian zer gertatzen ari den ikusteak”.

## “Gerra testuinguruan emakumeak biktima gisa islatzen dituzte hedabideek”

Ekialde Hurbileko eta Magrebeko gatazketan zein toki izan dute emakumeek hedabideetan? Narratibak aldatu dira bertako zein nazioarteko emakumeek euren errealitateaz informatu dutenetik, fokua aldatu dutenetik. Natalia Sancha kazetaria (Huelva, Espainia, 1979) *Balas para todas* liburuaren koordinatzailea da; “pasiboak ez diren eta errekamaran bala bat gordeta duten emakume guztien omenez” egindako bilduma, sei berriemaileraren eskutik.

 LEIRE REGADAS

**Nola ikusten dira gerrak emakume kazetarien begietatik?**  
Gerrari buruz oro har eta bereziki emakumeen rolari buruz aurretik zeuden narratibak apurtzen saiatu gara. 1990eko hamarkadatik hona emakumeak eta haurrak biktima gisa irudikatu dira, Ukrainako gerran ikusten ari gara diskurtsoa betikotzen ari dela. Emakumeek duten rol bakarra errefuxiatu gune batean egotearen kontzeptuarekin hautsi nahi izan dugu; horixe izan baita gizon kazetariak emakumeen errealitatearekin izan duten kontaktu bakarra Ekialde Ertaineko eta Magrebeko testuinguru patriarkal eta musulmanean. Gizartearen %50 ez zegoen ordezkatuta.

### Zerk ahalbidetu dizue errealitate horietara hurbiltzea?

Liburua idatzi duten kideen erdia bertako kazetariak dira, eta besteok nazioartekoak, baina Ekialde Hurbilean ibilbide luzea dugunak.

Ez gara parakaidistak. Gizarte ehuna eta hizkuntza ezagutzen ditugu, funtsezko tresna baita, batez ere konfiantza giroa sortzeko orduan. Lehen lerrotik atzeguardiara igaro ginen, normalean emakumeentzat gordetako espazio pribatueta. Berretsi genuen emakumeak ez direla biktimak. Batzuk ISISeko kide erradikalizatuak dira, beste emakume batzuk errekrutatu dituztenak; beste batzuk alargun gelditzen direnean etxeko ekonomia aurrera ateratzen dutenak; ekonomikoki independenteak izan nahi duten unibertsitateko ikasleak dira beste batzuk...

### Prisma aldatzea zen kontua.

Atzealdera begiratu beharra zegoen, bira egin. Odola gorria da eta kalaxnikovak berdinak dira leku guztietan. Emakumeak beti egon dira hor, Mendebaldeak heroi gisa irudikatu nahi ez zituen gerretan, Europako kolonien independentzia gerrak

zirelako. Beraz, bai, emakumeengana iristeko baliabide falta egon da urte askotan, baina baita interes falta ere.

**Sexu-indarkeria oraindik ere gerra-arma dela egiaztatu duzue. Elkarrizketa hauetan bereziki garrantzitsua da emakume kazetarien papera, ezta?**

Gerretan emakumeen gorputzak gudu-zelai bihurtzen dira. Herri bat suntsitze-ko emakumeak suntsitzen dituzte. Sexu-indarkeriaren testuinguruan, emakume horri begietara begiratzeak eta bere hizkuntzan hitz egiteak behar-beharrezkoa den lasaitasun eta konfiantza giroa sortzen du. Horrelako elkarrizketak ezin dituzte egin gizonezkoek; lehenik eta behin, gizonak direlako eta bigarrenik, atzerritarrak direlako. Beste pertsona bat dagoenean, itzultzailea dela edo fixerra dela, elkarrizketa hauetan ezinbestekoa den bi pertsonen arteko lotura galtzen da. Gauza oso gogorak eta pertsonalak kontatzen dizkizute, tabu diren gaiak.

**Ezin dugu emakumez eta gerraz hitz egin sexualizazioaz hitz egin gabe.**

Mendebaldeak ez daki zer egin emakume bat arma batekin ikustean. Kurduak aspertuta daude fusila eskuan dutela atzerriko kazetariak argazkiak ateratzera joatearekin. Jakina, Mendebaldeko edertasun estereotipoak erreproduzitzen. Liburuan oso kasu esanguratsua jasotzen dugu; Asian Ramadan milizianoa zen 2015ean, emakume ederra zen eta "Ekialde Hurbileko Angelina Jolie" gisa bataiatu zuten hedabideek. Estatu Islamikoaren aurka borrokan hil zenean, egunkari britainiar batek "Ekialde Hurbileko Angelina Jolie hil da" titulatu zuen albistea... Ez du inolako balio informatiborik.

**Gerra garaian bizitzak halabeharrez aurrera jarraitzen duela ere islatu duzue.**

Normaltasun oasia deitzen duguna sortu ohi da gatazka armatuetan. Narratiba desberdin horri heldu izan diogu erreportajeetan: ezkontzak, mozkorraldiak,

dantzak, morteroek egindako zuloak haurrentzako igerileku bihurtuta, tango edo parkour klaseak kale txikituetan barrena... Normaltasun apurrak dira, gerra pairatzen duten herritarrak humanizatzen laguntzen dutenak eta herritarrei sena ez galtzen laguntzen dietenak.

**Bertako hiru kazetarik eta nazioarteko beste hiruk idatzi duzuen liburuak *Balas para todas* du izena. Zergatik?**

Aurkitu ditudan emakume borrokari guztien omenez. Emakumeen gorputzak gudu-zelai gisa erabiltzea saihesteko bala bat gordetzen zuten beti; horrela, ISISek harrapatu aurretik, beraien buruari tiro egingo zioten. Ez zuten biktima kontzeptuan inolaz ere erori nahi. Era batera edo bestera, metaforikoki bada ere, guztiek gordetzen dute bala bat errekarman. Pasiboak ez diren emakume guztien omenez da, gerran guztiek hartzen dutelako parte, denek sufritzen dutelako, emakumeak egon badaudelako. ●



"Mendebaldeak ez daki zer egin emakume bat arma batekin ikustean". Argazkia: Mahmoud Elsheikh. Raqqa, 2019ko apirila.

# Feijooren aberrija genetikoa da

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

**E**z dakit nolakoa izango den Alberto Nuñez Feijoo PPko lider bezala. Txorradak produzitzeko makina bezala oso efikaza dela erakusten ari da. Joan den astean Bilbo-ko Euskalduna Jauregian egun bereziki emankorra zeukan. Carlos Iturzaizekin batera jendaurrean jolasten eta enredando zebilela kontuan izanda, logikak agintzen zuen ekitaldi horretatik titular txiripitiflautikoren bat ateratzekotan Santurtziko akordeoilari famatuaren ahotik aterako zela. Baina gertatu dena gertatu denez, pentsatzen hasi beharko dugu Feijook ere momentu gogoangarriak eskainiko dizkigula hemendik aurrera, bere pazotik aterako baita zezenlarru osoan barrena gaita jotzera.

Gaztetan Marcial Dorado ~~narkoa-  
ren~~ druidaren marmitan erori zenetik PPko beste inork baino gaitasun handiagoen jabe omen den izaki honek, zera adierazi zuen: “Nola ez dut euskal jendea maiteko? Seme bat dut gutxienez %25eko euskal genetika daukana. Aitona Euskal Herrikoa du eta ama 18 urtez bizi izan zen Bilbon. Ulertuko duzuen moduan, nire semeari begiratzten diodan bakoitzean Euskal Herriaz akordatzen naiz”. Ez dakit zenbat aldiz ikusiko duen semea Feijook, baina maiz samar egiten badu, Orreaga Iritzi Taldearekin konpetitzeko moduan dago Euskal Herriari buruz pentsatzen inbertitutako orduetan.

Dena den, euskal genetikaren portzentajea neurtzeko sistema bat postulatzen duen esaldi horrek sakoneko aldaketa ideologiko baten itxura dauka: eskuin espainiar nazionalistaren buruzagi berria Arana Goiri'tar Sabinen ideiak bere eginez, haren gaur egungo jarraitzaileei ere lotsa emango liekeen moduan. Lehen “¿qué pone en tu DNI?” galdetzen zutenak orain “¿qué pone en tu ADN?” galdezka.



Sabin Etxean algararen bat entzungo zen ateraldiaren berri izan zutenean. Gero, abdominal crossfiteroak lortzeko moduko barre-saioaren ondoren, igual norbaitek agendan apuntatu zuen: “Ditu Feijoori sinfalta, rolloa nahi du”. Zeren, nik uste dut politikak horrela funtzionatzen duela, eta berdin dela mikroaren aurrean jarrita bota duzun bertsoan zerk errimatzen duen “txindi” hitzarekin –portzierto, ze pena “dirua” euzkera garbijan esateko modu hori galdu izana–; hemen inportanteena mezua iristea da, azido desoxirribonukleikoaren bidez bada ere: Feijoo [bihotzaren emotikonoa] Basques. Pixka bat Urkulluk “I love Cat” txiokatu zuen une historiko hartan bezala. Baina pixka bat gehiago CiUrekin gauza lizunak egiteko Aznarrek “intimitean” katalanez hitz egiten zuenean bezala.

Eszenifikatu egin behar dela, alegia. Eta badirudi orain estreinatu nahi duten antzezlanak dela PP moderatu bat, periferietako indioak ulertuko dituen eta abar. Zeren haurtzaindegira bueltan bidali duten Pablo Casadorekin entseatu zuten “ultras sur” estiloak eman dizkien emaitzak nahiko erdipurdikoa izan dira –eta konkretuki paraje haue-  
tan, oso ipurdikoak–.

Lastima da obra berri honetarako euskal PPk eduki dituen bi aktore guapoak –Quiroga eta Semper– jada ez daudela. Iturzaiz bezain graziosoak ez ziren, ados, baina nik behintzat oso ondo pasatzen nuen ikusten nola aberzale zintzo askok desiraz beteriko fantasia errudunak edukitzen zituzten faxaliberalez pentsatzen. Genetistentzat ez dakit, baina psikologoentzat baze-  
goen lan-esparru bat hor. ●

# TXORI URDINAK

Espetxearen erretratu bat  
**Santi Cobos** presoaren ahotik

**Zigor Olabarria Oleaga**

**Santi Cobosek** (Leon, Gaztela, 1968) bizitzaren erdia eman du preso. Pairatu ditu torturak, jipoiak, muturreko isolamendua, FIES sailkapena; burutu ditu hamaika protesta eta ihesaldi saiakera, bahitu ditu funtzionarioak eta poliziak. Bidean, Euskal Herriarekin adiskidetu da. Gordinkeria, umorea, gorrotoa, samurtasuna, hausnarketa nahasten dira Santiren lekukotasunean; bere bizipenez harago, espetxe-sistema ezagutzeko kontakizuna da berea.

212 orrialde

**16€**

+ 4€  
bidalketa gastuak.

40 €-tik gorako  
erosketetan,  
bidalketa doan.

Hemendik aurrera  
erosketak **BIZUM** bidez  
ere ordaindu daitezke.

**azoka.argia.eus**

**943 37 15 45**

Zigor Olabarriak liburua aurkeztuko du Atxarte Salvador abokatu eta preso ohiarekin eta Itziar Moreno eta Santi Cobos presoen partaidetzarekin:

 **Martxoaren 31n 19:00tan**

 **Bilbo** Bira kultur gunea



**Nafarroako  
euskararen gaineko  
printzak aleka  
zabaltzeko **podcasta****



**entzun hemen**